



Iturria: *Haur besoetakoa*, Jon Mirande. Kriselu-Lur, 1970.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/M/MirandeHaur.htm>

HAUR BESOETAKOA Ipuin berri bat

Jon Mirande

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

LEHEN

Martxoko egun bat zen. Sartaldetik zetorren haizeak, itsasoko oihartzunen ekarle, makur-erazten zituen parkeko zuhaitz ilunak salaleihoaren aurrean; intzirika ari ziren, eta iharrosten ziren ontzi-mastak izan bailirakeen ekaitz baten jostagailu. Ba zirudien giza-bihotz baten amets maiteena, ontzi-irudi haietara emanaz, urrutira eramane zutela, beti urrutirago amets orok loratze ta betegintzarre duen ugarte doatsuetaraino... Baina haizea erortzen zenean eta gaurko hodei lodien artetik ilargiak bere arpegi maltzurra irkaitzez erakusten zuelarik, berriz ere urkabe bihurtzen ziren zuhaitzok, zut, gora, mugitu gabeak zeru beltzari kontra. Martxoko egun bat, hotza, epai-egun bat bezalakoa, pentsatzen zuen gizonak, kanpora begira; belek baizik ez zuten huts egiten... aski goizik hor izanen ziren ordea, haren amets hil-beharraz asetzera etorri-rik. Bat zekusan jadanik, begiak barruko aldera inguratzen zituen aldikal: neskame zaharra hor zebilen, beltzez jantzia, ezpain meheak tinkaturik eta mutiri, etxeko jaunak eragozten ziolako mahaia eraikitzen zihardukalarik. Baina gizona ez zen higitu, eta atsoari beste nahigabe bat emateagatik, agindu zion edatera ekar ziezon berehala.

Salan bero zen ta goxo, bihotza etsipenez izozturik ez zuenarentzat. Gar biziek xinpartak zerabilzkiten sutegian, alai eta zalapartari — egurrezko suak baizik ez zituen onartzen gizonak; ez zuen nahi esan — delako aurrerapenak haren etxe zaharra deusetan ere itxuraz alda eta itsuseraz lezan, eta askotan zinkurina egiten zion neskameak, aspaldiko otsein batek duen familiaritate zaputzarekin, ugazabaren burukeria horrek etxeko lanak zailago eta ugariago egiten zizkiolako. Gizonak gor egiten zion: zergatik lana arindu behar zion? Nork zizkion berari egitekoak arintzen? Besteen esanera gehiegi bizi izan zen orain artean eta ondikotz! oraindik ere besteek haren baitan jarritako itxaropenari amore ematera gertu zen, besteengatik sortutako bere buruaren aizun-irudiari uko ez egitearren.



Zergatik ote? Ez koldar zelako, agian. Gizarteko eginbideak zituen eragile, pentsatzen zuen ironia mingar batekin, etxe-ondo zahar baten jabe ta leinu ohoragarri bateko seme denaren eginbideak... naiko lotsa-gai ematen zion bere leinuari, hoge eta hamar urteetara heldurik eta beti ere lan egin gabe bizi izanaz, gurasoek utzi zioten diru apurra janaz, haren senitarteko gizon langille, zintzoak, aberasten ari zirelarik! Ez zuen, ez, atzera egiterik, onbideratu behar zuen azkenekotz. Ai! haren egiazko nortasuna non zegoen, eta zer eskatzen zuen, baleki, edonori gogor egiteko lain izanen lizateke noski, edozer gertaturik ere, ezen hark ere sinesten zuen «hoben dela sehaskan dagoen inut-aurrari lepoa tinkatzea norberaren bihotzeko nahikari bakar bat itotzea baino»; oraindik ez zekien ordea zer nahi zuen haren bihotzak, bildur latz bat zedukan haren irriki zoroa arimaren egarria kentzaile izan behar zitzaion ur garden ozpila, itur-buruan agortuko zitzaiola, esteta baten solas alferra baizik izan ez zelako hasieran. Hasieratik jakin balu egiati izaten.

Txinpartak ke-bidean gora jauzten ziren, sorgin ongile batek deituriko pamerial alaiak irudi. Gizonak inguratu zituen begiak leihotik suaren aldera. Sutondoan, zitzailuan jarri zegoen Theresa, eta garrek haren itzal lerdena dantza erazten zuten ormaren gainean. Irakurtzen ari zen, ahoa erdi-zabalik eta begiak liburutik hurbilegi, haur gazteek ohi dutenaz. Noizetik noizera, xinpart batek besteak baino biziago urrez erraus-tatzen zituen haren ile-xorta barneko ilun-nabarrean gorritzka agiri zirenak, eta noizetik noizera, gar luzeago batek haren aztal ezitia mihazkatuz, aldera inguratzen zen hats-behera ito batekin. Ba zirudien bere gogo oro irakurtzen ari zen liburu lodi, azal gorrikoan zedukala, baina gizonak begiratzen ziolarik, begiak eraiki zituen haurrak eta so egin zion aita besoetakoari irribarre herabeti batekin. Irribarre bihurtu zion gizonak, ez zen ordea deusen esatera ausartu, eta Theresak bere liburua hartu eta berriz ere irakurtzeari lotu zitzaion, matrailak piska bat gorriturik, suaren beroaz agian.

Elkarri so egon ziren ereti labur hartan, haurraren begi nabar zoargiak harenei erantsiak gelditu zitzaizkien betikotasunaren momento hartan, zer esan, zer adi-eraz zezakeen? Gorputza ikara zedukala eta sutan gogo, ez egurrezko su alaiaren garrez baina izaerazko suaz, lurra, haizea eta ura antzaldatzen eta moldatzen dituen — haragia den lurra, gogo den haizea eta arima den ura... Ur zabal bat, itsas-ontzi batzu tesoroa kargatuak haren gainean baitabilta, Sartalde herrimin-pizle batetik etorriak; Bizantziako urre ta zilar guztiak baino dirdaitsuago, Ispahango lore guztiak baino usaindunago diren tesoroaz zamatua... Gizonak, Theresari

begira zegokiolarik, bere herri-minaren jaioterri hura zekusan barruko begiekin, eta bere amets ezin esanezkoari hegoak aske uzten zizkion Sartaldeko uharte dohatsu haietaraino eraman zezan, Gazteen Lur ezkutatu hartaraino. Zoritzarrez! irudimenaren solas bat zen hori, soilki, bai baitzekien harentzat ametsa sekula ez zela egintzaren senide izanen...

Zenbat aldiz azken egun horietan, kirestasunez beterik ezinagoan, amets zoroari uko egitera ez zen saiatu, lehenagoko gizona izan ledintzat berriz ere, jendeekin jendakin, gizartean gizabidetsuki zebilen gizona, erdeinu apur bat doi-doi erakutsiz. Bere irrikiari amore emanaz, ba zekien bere hondamendira lihoakela, bere erruz, hala ziotson gizarteko eginbideak bederen. Eta alaitasun gabeko irri bat zuen bere gogoan: eginbideari hain jarraikia zen gizarte hortan, haren ezagun, adiskide eta ahaideen artean, ba ote zen haren kezka ta grina berak ezagutu zituenik? Bai noski, bat edo beste izan bide da, pentsatzen zuen, beharbada gutxien susma ditekene gizon zintzo, zindo, jainkotiar bat, baina delakok bere buruari gogor egin dio, bestela ez luke orain gora edukiko, eta inork ez lioke begirunez begiratuko. Hurrengoan ordea zuhurtasun horren zorakeriak, esan-delako gogo-indar hori egiaz den koldarkeriak hamorratzen eta naska erazten zuen. Ez! gizartean bere toki txikia gordetzeagatik batek edo bestek zer-nahi eginik ere, hura ez zen giza-saldoren aitzin-eritzietara makurtuko... Zoritzarrekoak, bere bihotzeko nahikari zindoa zapaldu badute besteak bezalako ez ziren hautetsi haiek! Ala hura baizik ez zen inoiz izan besteok ez bezela. Sartalde-tar itsasoko bazterrean zegoen herrialde zahar horretan, herritarren artetik hark bakarrik ote zuen sekula antsiatu eta ikusi, itsasoaz bestaldean, heriotze gabeko Gazteen Lurra, kristalezko abardun sagar-ondo ez alia den hura?

Theresak irakurtzen jarraitzen zuen. Ez zituen noski ulertuko haurraren adimen gazteak gizonaren gogoak alaten zituen zorabiozko pentsamendu horiek. Irriegarri zen... bere ezagun eta etseko guztietatik, neskameak baizik ez zukeen haren irrikia somatu; konturatu zen pekoz beteriko begiradak egotzen zizkiola, epaixka, atso sudur luze, ezpain mehe eta bihotz zabal hark, bere aio gartsuak gogoak errerik ametsetan iragan zituen azkenengo egun horietan. Eta pekoak ez ziren bakarrik, ikusi baitzuen gau oroz... Baina ez zuen muntarik zer susmatu edo zer jakin zuen neskame zintzo hark. Urteak eta urteak baldin baziren zerbitzazen zuela leialki, aurretik haren gurasoak egin zituen bezela, otseina-ren leialtasun horrek ez zion areago nagusiarri bildurrik ematen, ez eta leialtasun horren azpain zegoen gorrotoak... Edozein leialtasunen zamaz aileki halaber bere burua askatzen.



Hainbestenarekin, neskamea itzuli zen sukaldetik, vodka-botila bat zekarrela. Ezarri zuen mahaian etseko jaunaren aurrean, esker gaizto batekin atzerriko modak ez baitzitzaizkion joera arrotzak baino gustatzenago. Baina gizonak irribarre batekin esan zion godalet bat bete ziezion eta hasi zen alkohol garratza xurruptatzen, pentsakor, godaleta behatzen artean berotzen zuela. Neskameak, mahaia garbitzen jarraitzen zelarik, hari buruz inguratu gabe esan zion beingoan: «Andere Isabelak dei egin dautzu arratsaldean...» eta isilune baten ondoren gaineratu zuen «Theresaren bila joana zinelarik»; agiri zen haren mintzotik pentsatzen zuela hamaika urteak eginik zituen neskato batekin inor ez zuela laguntzaile beharrik eskolatik etserako... baina deus besterik ez zuen esan. Gogoratzen zen gizona emaztegiak bezperan esan ziola biharamoneko sei orduen aldean telefonatuko zuela. Ez zuen ahaztu, baina atera zen hala ere. Ez ajolatuarena eginaz, neskameari galdegin zion: «Zer nahi zuen?».

—«Esan-erazten dautzu bihar arratsaldean etorriko dela, eta etsean izan zaitezzen».

Gizona isilik egon zen. Ez zuen balio atsoari esan liezon, gogoan zedukana. Ba zekien Isabela neskamearen kuttuna zela... Barregarri zen, pentsa zer aburu zukeen andere gazte apainak atso arront, zantar horrez! Jende bakunak gutxien zituela ez zuen ezkututzen, eta halarik ere jende bakunok miresten zuten Isabela apain hori; bizi zen hauzoko herrian guztiek haren antzak eta edertasuna goraipatzen zituzten, eta baserrietako neskatilek haren erak kopiatzeko ahaleginak egiten zituzten. Barregarri, bai irudi zitzaion gizonari; berak ez zituen bakunak besteak baino gehiago ez gutxiago erdeinatzen... Lehenago, maite ere izan zituen, bere arbasoen etse zahar horretara egotera etorri zenean aita-amen heriotzaren ondotik, eta herrikoi izatera saiatu zen; haren saiatze horrek ez zuen ordea ondorio onik izan, bere-gisakoegi zelako agian-barka ez ditekeen bekatu bakarra! Lehenago, herrikoi eze izate horrek bihotz-min zemakion; orain berriz, ba zuen beste kezka-gairik...

Edaten ari zen, emeki baina lasaiki, eta pattarra bur-muinak berotzen hasia zitzaion eta pentsamendu minak sorgortzen — azaletik baizik ez, ondikotz! Ba zekien aski zuela sakonkixego pentsatzea, berriz ere bihotz-min ezin aitoritzekoa eratortzekotz, inoiz baino mingarriago. Beharko zuen bai askoz behiago edan oheratu baino lehen; beharko zion vodka egiazko mozkorraldi bat eman, lo egiteagatik soilki — ametsik gabeko lo astun, ahatz-erazgarri bat. Goizera artean, soilki. Goiz ozkiriak berriz ere betiko mundua esna eraziko zuen, harentzat ihesbiderik

gehiago ez zukeena. Eginbide estutik ibiliko zen handik aurrera, eta zintzo guztien goraipak merezituko zituen hark ere. Ai! vodka krea ahal baleza berekiko mundu bat, zoroa, burzoratua, bainan Isabelarik, neska-merik, ezagunik, gezurrezko eginbiderik behintzat aurkezteko ez lioke-na... Theresari begiratu zion, zeharka, dudana-mudana zegoelarik eia beste godalet bat edanen zuenetz. Ohartu zen haurrak bere liburua utzi zuela neskameak Isabelaren telefon-deiaren aipamena egin zuenean, eta haiei so jarri zela, geldi-geldia. Gogoan zer zerabilkeen? Zeri igarri ote zion? Edatea zer den ez dakizu bederik, oi Theresa, pentsatzen zuen bere mozkorrean, eta ez duzu ajolarik neure burua iltzeraino vodka murgil nadin gaur, ez nauzu horrengatik gaitzetsiko zuk... eta barruko irkaitz batekin irentsi zuen godalet bete.

Lotsa apur bat senditzen zuen hala ere, apur bat bakarrik. Alabaina, edan ala ez edan, ez al zen oro berdin, guztia orobat? Beraren gaztaroko egunak ber-irazaten zituen bere gogoan, mota guztietako alkoholek kolaturiko egunak. Mutil zelarik, biziak zarakuskion gaitz-itxaropena uxatzeagatik hasi zen edaten, gurasoen eta lagunak isilean; gizon-adinera heldu zenean, eta haren kezka eta bildurrak egiaztaturik izan zirenean, bere zorion ilortuen intziria, bere atsegin okaztagarrien oroipenak ohiltzeagatik edaten jarraiki zen, edonoren agerrean. Orain aldiz, alkohola izan behar zuen berriz ere lagunak onena, lagun bakarra herioraino ibiliko zen ukatzearen bide horretan. Damu zuen hainbat urtetan aldera utzi izan zuelakotz halako lagun bikain bat, bizi berri baten gezurrezko agintza eta hitz-emateek ergelki liluraturik, eta zin egin zion bere bihotzari sekula ez ziola areago uko egingen edanari, ez eta ezkondu ondoren ere. Are gutxiago ezkondu ondoren... Bitartean, biharamoneko goizera arte eramanen zuen vodka, harbitxizko jauregi dorredun bat haren inguruan eraikiz, hartan jaun eta jabe eskubide osokoa izanen baitzen, jendeen zintzotasun ankerretik sendoki zaindua. Goizera dinokoan... baina goiz-sentia, hiltzera dihoazenen aurpegi zurbilak azken aldikotz argitzen dituztenetakoa izanen zen goiz arrean, lurtara eraziko zion dorre zaindaria...

Bet-betan bere baitaratu zen. Theresa jaikitzen zen, ohera joateko. Arratsero egin ohi zuenaz etorri zitzaion agurtzera, aita besoetakoak musu bat eman ziezion bekokian. Baina isilik egon zen haurra, eta berak ere eztarria tinkaturikegi zedukan zerbait esan ahal izateko. Hala ere, salatik ateratzera zelarik neskatoa, agindu zion, bere botzaren ikara ta erruduntasun-kutsua ezin ezkutatzuz: «Ez ahatz hire sendagailua hartzen». Buruaz hartuko zuelakoa egin zuen Theresak, eta eskalera goiti abiatu zen.



Zainbera zen haurra, eta amets gaiztoak egiten zituelako gauaz aita besoetakoak eraman zuen, astebete zela, ezagutzen zuen sendakin bat ikustera; honek, gizonak haren kasua azaldu eta, beste galderarik gabe lo eragiteko sendagailu bat agindu baitzion. Arrezkero zintzoki hartzen zuen Theresak, bera konturatu ahal izan zenaz.

Azkenengotz neskameak mahaia eraikia zuen eta bera ere ohera joateko gertu zen. Nagusiari gau on opatzean, galdegin zion edaria eraman zezakeenetz. Atsoari displazer berri bat ematearren, erantzun zion gizonak godaleta har zezakeela, baina botila mahaian uzteko... eta neskamea salatik atera baino lehen irentsi zuen gelditzen zen vodka botilatik bertatik.

Orain itxaron. Hamar minuta, ordu-laurden bat gehienez. Naikoa izanen da. Gehiago ez edan, alkoholak ez ditzan haren begiak lauso, bere gautar atsegin apalaz osoro goza zedintzat. Bai, behar zituen begiak erne atxiki, gogoa ase eta batatzeko laster areago ikusiko ez zuen irudi maitagarriaz. Oraindik lauzpabost aldiz, ezte-eguna heldu artean, eta gero gehiago ez noski. Gero gehiago ez bere bizi guztian, edo beranduegi lizatekeen arteraino. Ai! gaiko ikustaldi isila amaitu ondoren beharko zuen botila bat vodka hustu, bakarrik bere ohean, gogorapen urragarri horrek haren gautik infernu bat egin ez leizontzat... Jarri zen zitzailean, Theresak utzi berri zuen lekuan, egur bat ezarri zion suari eta egon zen higitu gabe, minutak kondatuz paretako herlojuari so. Minuta bakoitzeko hirur-hogei sekonda iguriki behar, sekonda bakoitzeko, ordea, askoz luzaroago! Hotsik ez zuen entzuten etse guztian, bere bihotzaren taupadak ezik.

Ezer ez zen ezagun neskamearen gelan ere. Sukaldean ahal zen oraindik, zelatan. Bost ajola zitzaizkion! Salan argia piztuta utzirik, eta vodka-botila agerrean mahai-gainea, goiti joan zen. Lehenbiziko oinera heldu zenean ez zen bere gelaren aurrean gelditu; aurrera joatera zen baina orduantxe, neskamea bere sukaldetik ilki eta eskallera-sarbidean agertu zen... beste gauetan bezala. Deabru guztiek eraman ditzatela atso zantarra, eta haren susmoak! ez nau *hark* saihets-eraziko, pentsatzen zuen hasarreturik. Hala ere, ikusirik etseko jaunak geldituta-so egiten ziola, itzali zen neskamea... Goiti jarraitu zuen. Theresaren atera iritxi zanean, adi egon zen apur bat, belarria atearen kontra. Haurraren harnasa entzuten zuen, arin eta arauduna. Lo zatekeen astunki. Kontuz ibiliz den gutxien hotsik ez egiteko, atea ireki zuen, eskallera-buruko bonbilak eskaintzen zion argi ahulean haurraren ohera hurbildu zen, eta piztu zuen haren gau-mahaian zegoen lanpara txikia. Gero atea itxi zuen.

Gau-mahaiko lanparak leunki argitzen zuen lo zen haurra. Gizona kadirra batean exeri zen, alaba besoetakoari begiratzeko. Paretari buruz inguraturik lo zegoen, baina garbiro ikusten zuen haren aurpegi-ertz malgua, matrailaren marra ezia. Haren adats horia, gauerako deslotua, erortzen zitzaion sorbaldara; emeki laztandu zuen ile eder hori, behatzen artetik uzten zuela isurtzera urrezko ur bat balitz bezala. Haurra mugitzen ez zela ikusirik, haren idun mehar zuria ere ferekatu zuen, eskua pijama-lepoaren pean piska bat sarturik, gero barrurago, eta barrurago oraindik — haren idun-ezurtxoak senditzen zituen behatz-puntaren pean, eta jokatzan zituen, piano baten teklak bailiren. Theresa ez zen atzartu *sendagailua* xintxoki hartu zukeen... Bakarrik, hats-behera arin bat egin zuen bere lotatik.

Aizina zuen beraz. Kadiran exeri zen berriz, mozkorturik, baina ez gehiago pattarraren indarraz. Seigarren aldia zen alaba besoetakoari gauazko ikustaldi hori egiten ziola, seigarren aldia baizik ez, eta handik beste sei egunen barru, ezkondua izanen zen Isabelarekin; orduan ezin etorriko zatekean Theresa ikustera, gauaz eta ororen isilik, egun guztian haiduru egon ondoren. Orduan, Theresarik ere izanen ote zen etsean? Beharbada, Isabelak ez zuen onartuko haurrak heiekin bizitzen jarrai zezan; zio onak ekarriko zituen noski bere nahia lotzeko: haziera, eskola... Eta hark, amore emanen ote zion andregaiari, hori eska baliezo? Orduan arte, beti eta orotan amore eman zuen, andregaiak, etsekoek, lagunek zerbait harengandik eskatzen zutenean, eta orain beranduegi zen noski gogor egiteko: giza-saldoan sartzea ontzat hartu zuen, areago ez zedukan berezko olde ez oldarrik izateko zuzenik eta haren otoitz piadosa izan beharko zen handik aurrera: «Besteen nahia egin bedi, zeruan bezala lurrean ere!» Baina oi! Theresa kenduko baliote besteok... haren-gandik eramanen balute beste leku batera... Denbora apur batentzat baizik ere ez bazen izanen, hiru edo lau urterentzat, ba zekien deus ez zela berriz ere orain bezala izanen, gero haurra itzuliko baliote ere. Haurra, baina ez lizateke orduan areago haur bat, emakumeen antzak jadanik ikasiak zitukeen neskabila bat baizik. Beranduegi lizateke, betikotz. Hobe lizateke, bai, orain hil balekit, eta horrelako gero bat sekula ez ledin izan! pentsatzen zuen kiraski.

Theresaren gainean makurtu zen berriz eta aurpegia ingura-erazi zion beraren aldera, baina haurrak begiak itxirik zeduzkan eta harnasa lodi egiten zuen; lo-erazgarri indartsuari esker, ez zen esnatuko... Izara eratsi zuen: Theresa haurrak bezala lo zen, gorputxo konkorturik, belanak gora eraikirik. Gizonak besoetan hartu zuen, lehen baino bor-



tizkiago lastandu zuen haren gorputz guztia pijamaren gainetik, musu bat eman zion bekokian eta, apur bat lotsaturik hala ere, hasi zen pijama-botoiak laxatzen. Baina haurra biluzik gelditu zenean haren besoetan, sukar batekin estutu zuen bere gorputzaren kontra. Haren bihotzaren taupadak orduan, haren odolaren bultzakada eskuak neskatoaren larru eztiaren gainean iragan erazten zituelarik...! Ohe-gainean pausatu zuen atzera, bere luzean, hobeki begira ahal ziezakeon edozer baino laketago zuen gorputz horri.

Ez balitz hain polita izan, sekula kasu eginen ote zion bere alaba besoetakoari? Ez beharbada; errukiz zuen bere etsean hartu, Theresa umezurtz gelditu zenean; urteak ba ziren ez zuela ikusi, eta ez zekien eta nolakoa zen ere. Gutxi asmatzen zuen, orduan, aste zenbaiten bururako zertaraturik lizatekeen Theresa txiki hori zela kausa. Eta orain, susmatzen hasia zen gorputz eder hori, bere edertasun mozkorgarriagatik eta guzti ere, sinbolo bat baizik ez zela, haren bihotz urduria herri-minez jotzen zuen zerbaiten sinboloa, baina oi! inoiz ez zuen orain sinbolo hori behar bezala ikertzeko astirik izanen. Hain gazte zelarik, Theresak ez zuen hainbat aldiz adin horretako haurrek duten mehetasuna erakusten, nahiz, zeruari esker, ez zen oraindik formatua neskato goiztarregiak diren bezala. Baina emakume batenaren eztitasuna zedukan haren larru esnetsuak eta haren iztarrak, mardul eta fresko zirenak, berotasun batez iraganak izaten ziren gizonaren eskuak heien gainean zabaltzen zirelarik eta barruko aldera eztiki oratzen zituztelarik. Urre ta marmorezko usain-ontzi bat zedukan hor eskuen artean eta, makurturik, ahoratzen zuen usain maite hori, hainbat mozkor-erazten zuena. Eta Theresaren haur-emetasunaren zigilua hain sotilki zekarren sabeltxo ordo horri, ozta antzen hasia zen bular zuri horri bere zorabioan begiratzen ziolarik, murmurikatu zuen, bet-betan goibeldurik: «*Et les fruits passeront la promesse des fleurs...*». Bai zoritxarrez; handik urte gutxi batzuetara, hiruzpalau urteren bururako, betiko joana zatekeen haren haurtasuna; lore berri bat izateko orde, udako frutu lirin bat izanen zen maitaleen hortz erruki-gabekoek osk egingo ziotena eta, laster udazkenak zimel-eraziko zuena... Handik urte zenbaitetara, beltzaranduko zen urrezkotasun hori guztia, endaren hala-beharraz, eta sexuaren hala-beharraz haragi arin eta malgu hori mardulegi, beteegi eginen zen. Begiak orain bezain nabar eta garbi egonen zitzaizkion noski, bainan orain begi horietatik so egiten zion arima, bere aldatu ezinean ere, estaliko, ezkutatuko zen Theresaren gainerako bizi guztirako eta haren orde, emakume baten espiritu huts eta itsuak so eginen zion... Nazkagarria! Hobe lizateke bai oraintxe hil lekion, bere

haur-emetasuna orbandu gaberik zedukalarik, bihotzean zauri sendatu ezin bat utzi behar bazion ere.

Baina ez zen ordu, gogorapen hits horiek ala zitzan; orain haren poz haundiaren ordua zen, gorputz polit horrez ikusiz eta ikertuz gozatu behar zuen ezinagora artean, ahazturik biharamoneko egunak zer ekarriko zion gizonezko eta emakumeekiko aspertasun, ez-ontza ta zorigaitzik, ez pentsaturik Theresaren gela utzi ondoren edariak emanen zion mozkorraldi motz eta laburregiari. Gorputz eder horren gune bakoitza hukitu behar zuen begiz eta eskuz, haren ezaguera betiko iraunen zuen altxor bat izan zekiontzat enparantzako egun goibeletarako. Hartzara hartu zuen Theresa bere besoetan, musu bana eman zion haren begi itxiei, aspertu gabe haurraren izena ahapeka berresaten zuela inkanta bat izan balitz bezela. Baina burua eraiki zuenean hobeki so egiteko alaba besoetakoaren aurpegi politari, xunditu zen konturatzean Theresak begiak zabalik zituela eta begiratzen ziola, isilik. Harriurarekin botza moteldurik, galdegin zion: «Ez haiz lo?» eta lotsa arren, haurra bere ohean pausatzera zihoan, haren gelatik lapur hatzeman batek bezala ihes egiteko asmotan. Theresak orde mintzatu gabe besoa ezarri zuen gizonaren lepoaren inguruan eta ez zuen utzi joatera. Eta hark, nahiz lotsaz gorritua zen haur biluzaren gorputza bereari kontra sendituz, amultsuki tinkatu zuen, berriz ere galdetzen ziola: «Ez haiz lo? ez dun sendagailua hartu?» Buruaz ezetz egin zuen Theresak eta, hark ere lotsarekin matrailak gorri izanarren, iruditu zitzaion aita besoetakoari ba zela halako irri-no bat haren begietan. Galdeka jarraiki zitzaion: «Eta beste aldietan ere ez huen hartzen?» Berriz ere ezekoa egin zion Theresak eta, konfusioagatik begiak ixten zituelarik, ozta entzun zitekeen botz txiki batekin eskatu zion: «Musu bat emadak...» Bekokian eman zion baina haurrak burua astinduz, haren ile-adats ederra gizonak ferekatzen zuelarik, esan zion: «Ez hola, oixtion bezala!». Orduan, bere lotsa gaiztoa galdurik, begiak musuz estali zizkion eta eskuaz lastandu zion gorputz guztia, lehenik herabe batekin, gero beti ausarkiago, haurrak gogor egiten ez ziola ikusirik.

Theresak begiak ireki zituenean, orde, ikusi zuen negarrez bustirik zeduzkala. «Zer dun, Theresa?», galdegin zion samurki, «zer dun, gaxoa?»

—«Ez nauk hemenik joan nahi», erantzun zion haurrak, negar-zotinka hasten zelarik bihotz-min haundiegi bat luzaro ezkutaturik gorde izan duen baten antzora. «Hirekin egon nahi diat!».

—«Baina Theresa, zergatik beldur haiz joatera utziko haudala?».



—«Ba zekiat ezkondu behar duala, eta orduan joan beharko diat».

—«Ez Theresa, ezkondu ondoren ere, neurekin gordeko haut, hago lasai...».

Baina Theresak ezetz egin zuen, eta saminki jarraitu zuen: «Ez, Isabelak ez nik maite, eta ez dik nahi izango hirekin egon nadin».

Egia ote zen Isabelak ez zuela neskatoa maite? Sekula ez zuten elkarren artean haren aipurik izan... Nola ere baitzen, susmatu ote zituen haren lokarriak Theresarekilako, nahiz emaztegaiaren aitzinean, hala nola beste jende guztien aitzinean, hasieratik ahalegindu zen bere sentimenak ezkutatzea? Ba zitekeen — zer nahi izanik ere haren buru-arinkeria eta azalkeria, gizonen bihotzaren ezagutzaile aditua zen Isabela, ohart-ikasi aberats baten jabe zen eta... Eta gizonak andregaia gaitzetsi zuen bere baitan, hauraren negarraldi horren zio zelako, baina fidatzen zen jakinen zuela Isabela hartara ekartzen, alaba besoetakoa haiekin egotea onar zezan. Beharko zuen jakin! Hortarakotz, edozein humilazio, zernahi hildura jasatera gertu zen. Erabaki zuen bere gogoan biharamonean bertan hauzi hori zurituko zuela Isabelarekin, eta botz sendo batekin esan zion Theresari: «Ziur ziur izan hadi enekin egonen haizela, beti».

—«Baina Isabelak ez ba du nahi?».

—«Nahi izanen din. Eni fida hakit, harren, eta ez dezanala gehiago negarrik egin».

Oraindik ere haurra ezin zen kontsolatu eta negarrez beti, eskatu zion: «Zin egiten duk gordeko nauala heurekin?». «Zin egiten daunat, bai», erantzun zion, musu bi emanaz haren begietako negar beroetan. Orduan bakarrik zen haurra baketu eta sinisten ziola agiri zuen; irribarreño bat egin zion, lotsatua, eta gizona gorritu zen, eskua ezarria baitzuen ohartu gabe Theresaren sabeltxoaren gainean, haurra lotan zelakoan egin ohi zuen aaura, haren gorputza oro ikara jartzen zuela lazten luze, geldi horrek. Theresaren artegatasunaz konturatu zen eta poliki pausatu zuen ohearen gainean, ziotsalarik: «Lo egin bear dun orain, Theresa, utziko haut». Utziko, bai, bainan zer bihotz-urradurarekin!... Baina orain, ba zekien biharamonean ere etorriko zela eta Theresa esnaturik aurkituko zuela, haren begira. Eta aurreko gau horietan orotan, haren ikustaldiaren haidur egon zelako gogorapenaz, halako eztidura bat, halako zorion bat, halako zorion bat nabaitzen zuen bere baitan, hala non eguneango pentsamendu kiratsak oro urtu baitzitzaizkion, izotz-orratzak eguzkiaren leinuru baten indarraz bezela. Nekez bazen nekez, ohetik urrundu zen, eta ohean luze-luzean zetzan haurrari ereti bat isilik so egon ondoren, ateari buruz abiatu zen, «Gau on, Theresa» esaten ziola-

rik bakarri, baina musu baten eztitasuna eman nahi izan zion bere mintzoari... Atea itxitzerakoan, hala ere, gaineratu zuen, xantxetan bezela: «Ez nazanala ahatz heure ametsetan» eta iges egin zuen haren aldera inguratu gabe. Theresak iguriki zuen atea itxi zezan bere pijama janzte-kotz.

Ez lezan ahatz bere ametsetan... baina hark, gau guztia haurra bere gogoan zukeela iraganen zuen. Ez zuen ez gehiago alkoholez horditze-ko beharrik, eta hain goibelki hasi zen arratsaldea, jai-arrats bat bezala izanen zitzaion, goizeraino. Eta pentsatzeak Theresa xiki hori aski antzetsua izan zela lo zegoelakoa egiteko aldi horietan, orotan, haren ikustera zetorrelarik, irriño bat erakarri zion ezpainetara, zorioneko irriño eskerdun, dohatsu bat.



BIGARREN

Gau hartan ez zuen begirik itxi. Nola galduko zituen lotan haurra-
ren irudiaz oraituz iragan zitzakeen ordu prezios hek? Hura lo zegoen
noski dagoneko —hain zen gaztea eta...— baina ez zuen dudarik leku
bat gorde ziola bere haur-amets garbietan. Gau-erdiko isiltasun hitzu-
nean, gauko ilunpe izarniatuan, gogoratzen zituen gizonak alaba besoe-
takoaren gorputz xikiaren atal guztiak, ikusten zituen berriz ere haren
aurpegi-marra finak, haren ile-motots leporaino eroria, ezti bat ahorako,
urre dirdaitsu bero bat eskurako, eta haren larru malgu epela hain laz-
tangarria; berriz ere entzuten zituen belarrietan besoetan zedukalarik
neskatoak esan zizkionak oro, bere botz ikara, hukigarrian. Eta nahia oro
tinkaturik hartara ematen zuen Theresak ere hura ikus zezan bere lotan,
eta entzun zezan bere ametsetan hark esatera ausartu ez zitzaiena.

Bihotza dantzan zedukan, biharamon goizean jaiki zenean. Kanta-
tzez jantzi zen eta salara jautsi. Theresak ez zuen eskolarik egun hartan;
bere aulkion eseri zen, haren haiduru. Laster etorriko ahal zen. Gosaria
ekarri zion neskameari agurra otzanki bihurtu zion; edonori barkatzeko
gertu zen halako arrats bati zerraikion egunean. Egia zen itzal batek ilun-
tzen zuela haren poza, oroitzen zelarik egun hartako arrats-aldean emaz-
tegiarekin izan behar zuten elkar-ikustaldiaz — baina ez zituen susmo
xarrak utzi nahi bihotzeko oskarbia nahastera. Jakinen zuen Isabela kon-
bentzitzen haurra betikotz harekin egoteko zela, ezkontzak ezin alda
zezakeela ezer ez. Men egin beharko zion Isabelak opariñari, berak egin
zion bezela! Hasi zen tea edaten, gogoa urduri alaba besoetakoaren eto-
rreraren begira — urduritasun alaia zen ordea... Zer izanzen ziren There-
saren lehengo eleak, zer esanen zion bezperako gertatutakoaz? Esanen,
deusik ez noski, baina asko adi-eraziko zion bere isilean. Ezagutzen zuen
haur isila... oraindik ez gura zuen bezainbat, eiki, baina ezagutza hori
gehituz joanen zen egunero, ezkutapen berriak argitara-eraziko zituen
egun orok Theresaren haur-nortasunarekikoak... Irrikiz zegoen ikerkun-
tza hori lehen-bai-lehen hastekotz.

Azkenekotz Theresa agertu zen. Beste goizetan bezala etorri
zitzaion bekokia eskeintzera, musu bat eman ziezon aita besoetakoak.
Honek susmatu zuen bezela, deus ez zion esan ohiko agurraz kanpo,
baina gizona ohartu zen, haurra salan sartu zen orduko, matrailak gorri-
tuxe zitzaizkiola eserita eta haren haiduru ikusi zuenean. Galdegin zion,

begietara so eginaz: «Ongi lo egin dun, Theresa?» Orduan ere isilik egon
zen haurra, baina irribarre bat egin zion epaixka aita besoetakoari, eta
irribarre isil, itzurkor horrek edozein ihardespén balio zuen. Gizonak
jarraitu zuen bere tea xurupatzén neskameak gosaria zerbitzatzén ziola-
rik Theresari. Laster, biok gosaria hartu ondoren eta berak mahaia erai-
ki eta garbitu ezkeru, merkatura aterako ahal zen neskamea eguneko
erospenak egitera, kanpora joanen ahal zen, edonora, biok bakarrik
etxean utzirik goizalde guztirako. Nork zekien noiz gertatuko zitzaien
horrelako beste goiz bat, elkarrekin izateko jakile baten gabea... Gero-
arekiko kezak gerorako lagatuz, betegintzarre bat izan dadila oraingo
goiz hau bederen! murmurikatzen zuen gizonak, otoitz-antzean, There-
sari so zegoelarik.

Azkenean, eta ez goizikegi, atera zen neskamea. Kanpora joanik
zela segurtatu ahal izan zenean, jaiki zen gizona, eta salatík ilki. Thesa-
ren aulkiaren atzetik iragatean, haurrari ilea ferekatu zion, eztiki eta
amultsuki; deus ez zion ordea esan. Bibliotekan sartu zen baina ez zuen
libururik ez aldizkaririk irakurtzeko gogorik. Bere besodun jargian exeri
zen, eta radioa pizturik, musikako emisio bat bilatu zuen. Musika goibel
bat entzun nahi zuen, ez latin-errietakoa inola ere, Alemania edo Rusia-
koa baizik; samur eta hotzena, barrurakor eta oroz-gainekoa batean,
halako bat soilki zen gai haren atseginaren laguntzaile izateko. Ezer ez
baitzuen bere gusturako aurkitu, radio itzali eta Schubert'en «*Amaitu-
gabea*» ezarri zuen disko-ingurutzalean. Egokiagorik ezin asma...

Eta berehala, Theresa etorri zitzaion aldamenara, itunbe baten
ondotik izan bailitzakeen — baina ez zuten ezer hitz-artu... Haren oine-
tara jarri zen haurra, aulki apal batean; liburu bat zedukan eskuan, esko-
lako liburu bat tindaz orbanduxea... Ez zuen zabaldu; isil isila entzuten
zion sinfoniari — zorionez, hain gazte izaki, musikatzalea zen eta biok,
gizona eta haurra, mugitzeke egoten ziren, ez zioten elkarri begiratzen
ere, Franz gizajoaren doinu hits, bihotz-erdiragarriak hots egiten ziolarik
arimari. Diskoa azkenekotz bukatu zenean, ez zuen beste bat ezarri.
Begiak erdi itxita, uzten zuen musika jainkozko hori haren baitan are
durundatzera, Theresaren hor izteaz ederrago, joriago, zentzuz zamatu-
rikago zen musika hori. Eta haurrak, ikusirik oraindik ez zuela hitz egi-
teko gogorik, bere liburua iriki zuen eta hasi zen irakurtzen, ezpainak
higituz zerbait ahapeka esan balu bezala — lezioren bat ikasten ari zate-
keen, eta gizonak irribarre egin zuen, bere pentsamendukari jarraitzen
zitolarik.



Apur baten ondoren, galdegin zion: «Zer ikasten ari haiz, Theresa?» Haurrak, hizketarako gertu zela konturaturik, laster itxi zuen liburua eta erakutsi zion. Bihotz-mugida batekin so egin zion haur-liburuko testu eta apaingarri lau heiei... Theresaren espirtu berria, Theresaren nortasun xiki, preziosa, kulturaren ezagutza egiten ari... ikugarri eta zoragarri zitzaion asmo hori. Baina bekaizkeriak osk egin zion bihotzean, bet-betan otu zitzaionlarik arrotzak izanen zirela haurraren irakasle. Zer esku-bide zedukaten heiek haren adimena formatzeko? Zergatik heiangandik ikasi behar zuen Theresak? Damu zuen sekula eskolan ezarri izan zuela-kotz, berarekin gordetzeko orde, bera egoteko orde haren irakasle bakarra. Egiatzki, ez ote lizateke solas atsegingarri bat izanen, bene-benetan bere eskuetan hartuko balu alaba besoetakoaren eskolatzeko kargu hori, haren pentsaeraren errainu bat izan ledin haurrarena. Zihurrik zegoen Theresak, —nahiz ez zen orain artean eskoliersa ona izan— bere ahaleginak oro eginen zituela hark irakatsitakoak ikasteko. Eta berak zekien guztia irakatsiko zion, eta guztia ulertzera ekarriko zuen, eskole-tako programak moldatzen dituzten asto jakintsuak eskandaliza-erazte-rainokoan. Theresa filosofia ikasten... Theresa latin eta grekoa ikasten... Theresa hark moralari eta gizarteari buruz zituen dotrina garratzak ikas-ten, ulertzen, onartzen... Oro har, ez zen burutasun zoroa... Erabakitzen bazuen jakintza-gairen bat edo beste alaba besoetakoari handik aurrera berak irakatsiko ziola, aitzakia bat ba zukeen harekin bakar bakarrik ego-teko, bibliotekan edo haren gelan, Isabelarekin ezkondu ondoren ere; ez zuen uste andregaiak behaztoparik ezarriko zionik, kontuz ibiltzen bazi-ren behintzat. Aspergarri izanen zitzaizkion irakats-aldi horiek eta tran-kil-trankilak utziko zituen biak. Maltzurkeria xiki horrek alaiturik, irri egin zuen, eta Theresak burua eraiki zuen, igurika. Baina liburua itzuli zion gizonak, eta galdegin: «Heure lezioa ikasi al dun?». Haurra beste zer-bait entzun haiduru zatekeen eta haren aurpegian agertu zen poz galde-korrek alde egin zuen, botz xiki batekin erantzuten ziolarik: «Bai, ba zekiat». Ez zekien, orde — liburua aitzakia bezala baizik ez zukeen hartu; eta gizonak esetsi zion zorrotz samar: Ez haiz langile, Theresa, deus ez dun ikasten, deusik! baina haren begietako barreak gezurtatzen zuen zorroztasun hori. Jarraitu zuen hala ere: «Bai, Theresa, merezi huke zigor henzadan, haur alfer bat baizik ez baihaiz, baina...». Theresa zigor-tuko? Inoiz ez zuen egin, inoiz ez zitzaion gogoratu ere egitea! Gaixo Theresa, pentsatzen zuen, ni baitan irakur ahal baheza ez hintzateke ene beldur, hire begiek ez lieukedanate ene bihotz-min gozoa den haur-izu urragarri hori erakutsiko... Ez zuen joko, ez, edo-ta, sekula egiten

bazuen, haren negar gazien ezintasuna dastatzeagatik izanen zen baka-rrik, bera izan zekiontzat gero kontsolagarria! Eta amaitu zuen bere esana: «baina ba dakin: ez haudala eginen, ez da?» eta Theresaren begiak, hezerik agiri zirenak, idortu ziren behingoan, gizonak zutit-erazten eta beso bat gerri-inguruan ezartzen ziolarik. Bere gorputzari kontra estutu-rik, eta musuak ereinaz haren ile argietan, esan zion: «Lan egin dezanan nahi dinat orde, andere bat oso eskolatua izan hadin nahi dinat, enekin egon behar bahaiz». Bai, hala izanen zela, hala eginen zuela zin egiten zion Theresak — zernahi eginen zuen etsean egoteagatik! «Eta hemen-dik aurrera, jarraitu zuen, neronek eskolatuko haut. Nahi dun?». Nola ez zuen nahi izanen... «Baina zer nahi dun irakats diezanadan? Esaidan». Haurrak ez zekien, baina irriz esan zion: «Nik ba zekinat zer irakatsiko daunadan: latina...» eta gaineratu zuen, Theresaren belarrira ahapeka: «Latinak ba din alde on bat: Isabelak higuin din, nahiz ez duen hik baino gehiago susmatzen zen den ere. Eta biok bakarrik utziko gaitin noski, hartan ihardukiko dugularik!» Haurrak ere irri egin zuen, pozarren — zihur zen latina horrengatik ikasi nahi izanen zuela.

Ez zuten beste eskola aipurik izan. Minutak eta orduak aurrera zihoazkien, laster neskamea merkatutik itzuliko zen, bazkaltzeko tenorea izanen zuten sarri, eta bazkal-ondoan... Gizonaren gogoa goibeltzen has-ten zen, pentsatzen zuelarik orduan andregai etorriko zitzaiola eta beharko zuela arrats-aldea harekin iragan, haurra utzirik. Zergatik ema-kumearen oroipenak behar izan zuen hain betegina, hain akats-gabekoa zen ereti hori ilundu eta eragabetu, ziotsan bihotzak erasiaka, begiratzen ziolarik alaba besoetakoari haren aldamenean zutik, aurpegi polita oro alai, gerri meharra haren besoan malgurturik landare gazte bat izan bai-litzakeen.

Baina Theresa ere Isabelaren etorri-beharraz gogoratzen zen, eta eguerdiko hamabiak hurbiltzen ari ziren araura, haren alaitasuna itzaliz zoan, begiak seriotzen zitzaizkion, eta noizetik noizera so egiten zion luzaro gizonari, eia bere hitza gordeko zuenetz galdegiteko bezala. Isilik egon ziren biak bazkal-artean, neskameak merkatuko berriak kondatzen zizkiolarik etseko jaunari. Zer ajola zitzaizkion... Zertarako bakezko azken minuta horiek nahastu nahi zizkien atso zantarrak... Baina, haren isiltasun mutiriari kasi eman gabe, eta atsegin sadiko batekin bezala, hitz-jarioa sekula baino haundiago zuen hitz-ontzi gaizkindu hark! Oro poz-kario eta irribarre zen, beste bien goibeltasuna gehituz zolarik. Ba zekien gizonak Isabelaren etorrerak ziola bihotza alaitzen emakume zaharrari. Ezkontzari buruzko antolamendu batzu egitera zetorren



noski, eta bere biziko gertakizun bati bezala begiratzen zion neskameak ezkontza zoritxarreko horri. Haur-danik ezagutu eta zerbitzatu zuen ugazaba bere-gisako hura, azkenekotz beste gizonak bezala egitera gertu zela, gogoia betatzen zion otsein zindoari — beharbada, uste zukeen bere otoitzei esker izanen zirela ezteioiok... «Bere gisara atxikia zait, bai, esan zuen leialki gizonak bere baitan, irudi zaio noski seme bat bezala maite nauela, eta hala ere, haren maitakeria horrek ez du nire ardurarik; nigan ezarri dituen itxaropenak betatzearen, onartuko du betiko zorigaitzean bizi nadin, eta ene zorionerako bidean sartzeko aski bihoztoi banintz, lehengoa lizateke ene gaitzesteko, enekin egon den urte guztiak-gatik, enetzat egin dituenak orogatik eta guztiz ere. Zer ergelkeria samina jendeekilakoa».

Hiru orduak irian Isabela etorri zenean, gizona bere zoriari amore emanik zegoen. Hala-beharrak eskatzen zuen ezkerok... Isabela itzur ez zitekeen gaitza zen ezkerok... Gaitz hori gaitz-erdi baizik gerta ez zedintzat ordea, bederen behar zituen aleginak oro egin Theresa heiekin bizitzea onar ziezola andregaiak. Ahal bezain laster mintzatuko zitzaion hauzi horretaz, eta ez zuen horretan amore emanen, zer nahi esanik ere Isabelak.

Anderea agertu orduko, bere gelara joan zen Theresa laburzki agurtu ondoren, biak utzirik sala haundian. Isabela ez zen noski hauraren esker gaiztoaz konturatu? Gizonak begiratzen zion emaztegaiari, ezpainetara zetorkion nazka ezin ezkutatu. Hala ere, bere buruari aitortu behar zion emakume polita zela... Esku ona izan zuela aukeratu zuelarik esaten zuketan haren adiskideek — adiskiderik baldin bazuen oraindik. Hori zitzaion mingarrien. Berak eta bere oguz zuen aukeratu, orain urtebete edo zela — Theresa haren etsean sartu baino askoz, askoz lehenago. Ohaidetzat izan nahi zuen —oi! sensualitatearen ergela... Baina polita zen, naiko aberatsa, eta senitarte onekoa; eta behin, zoritxarreko gau batean, ezkontzeko hitza eman zioten elkarri... Berak hala nahi zuen, berak zituen lehengo urratsak egin bere zoritxarrerako bidean— eta zaldun batek ezin dezake bere hitza atzera har, emakume bati badio ere eman. Ala bai?

Ilea harro, begien ñirñira dirdaitsuegi, bularra jori, Isabela ez zen noski etorri ezkontzarako azken antolamenduez hitz egiteko soilki... Begiratzen ziolarik, zakur-eme bat orkara gogora-erazten zion senargaia-ri eta, nardaz beterik, soa inguratu zuen haren aldetik. Baina inondik ere ezin ziezakeon bere higuina erakuts irrikatzen zuena lortu nahi bazuen; zenbat kosta ere, sekula baino amultsuago agertu behar zitzaion gaur andregaiari, eta horrengatik, ahal zuen bezain otzanki erantzuten zion,

Isabelak herriko esa-mesak kontatzen zizkiolarik, edo ajola-gabeturik uzten zuen baten edo besteren berri ematen ziolarik, edo-ta ezteietarako egin erazi zuen jantziarekiko albiristea jaulkitzen... Hain pairu haundikoa izan zitekeenik ez zuen esperantza, baina, zion bere baitan, ez-jakin noiz artera iraunen dautan, horrela luzaz jarraitzen badu eme ergel horrek!... Eta beraren hipokrisia hasten zitzaion barruan ausiki egiten ere... Beste biderik ez zegoen ordea.

Madarikatzen zuen Isabela ezagutu zuen aspaldiko egun hura, orain urtebete zela. Urtea ezagutzen zuela, bai, baina lehenbiziko gaua goizera heldu gabe ba zekien ez zuela harekin egon behar, ezin zitekeela neska apain dotore, adimen huts eta modari jarraitzaile harekin bizi izan. Susmo bat baizik ez zen, haren arimak zuen irriki bakarra, irriki mingarri, gozo eta heriminezko hura oraindik oharkabean baitzedukan... Baina arimari jakin izan balu nola galdegin, bere zorionerako, inoiz ez zen noski abiatu izan zen bidetik hasiko. Inoiz ez zen Isabelarik izanen. Bere gurasoak galdu ondoren itsas-bazterreko etxe zahar hartan hasi zenean bakarrik bizitzen, uko egin behar zion ordura artean ezagutu zuen mundu irudikor, azal-utsezko eta aspergarriari; jendeekilakoa utzita, bere bakartasunean iguriki behar zuen zeruak edo zoriak eskainiko zion abagunea —eta delako abagunerik sekula ez ba litzazio gertatu, hobe izanen zen bere heriotzaraino, edo bere buruaz beste eginen zuen eguneraino, bere amets gurenarekin bizi izan balitz, santutasunaren bila dabilen eremutar bat irudi. Koldar izan zen ordea, ez baitzion munduari uko egin nahi izan, bide erreza aukeratu zuen— zergatik, harren, zertarako? nahimenaren xarraz ala bihotzaren onegiaz, besteak-gatik ala bere buruaren bakerako? —eta abagunea etorri zenean, beranduegi zen; lotua zegoen dagoneko. Ez! beranduegi ez zen oraindik... andregaiari kanpoa eman behar zion Theresa haren etsean sartu zen egunetik, lehen sotik susmatu baitzuen gerorakoa, lehen alditik esan baitzion bihotzak... Baina oi! aste bat baino gehiago, lehengo gaua baino gehiago, zergatik egon ote zen Isabelarekin? Sensualitate izendun or-eme higuingarria izan zen kausa... Alabaina, oraindik agrada zitzaion orduan emakumearen gorpuzta, ez zituen haren gogoia eta bihotza baizik erdeinatzen... Edo bederen, uste zuen oraindik Isabela baten haragi mardul eta beroak emanen ziola haren etsipen isilak eskatzen zuen mozkorraldia. Ustekeriaaren huskeria! ez al zekien vodkak, oro har, hobeki lausotuko ziola arimaren min sendatu ezina— eta beste sorgor-emaleak ere baziren, orain artean dastatu gaberik utzi izan zituenak. Edozer onargarriago izanen zen Isabela bat baino.



Orain emaztegaiari begira zegoelarik, errukirik gabe ohartzu haren larruaren zimurtxo bakoitzari, haren begi-petako beltzari, haren irri-egite inozoari, gehiago ez zuen ulertzen zergatik gau bakar bat ere galdu zuen sekulan, gorputz ikol horretatik atsegin apur bat atera nahirik; haren haragiak ahazturik zuen inoiz beste haragi horrek eman zion ikara, eta harekiko solas higuigarria berriz ere hasi beharrak izotzez betatzen zituen haren zainak oro. Baina ez zuen itzurbiderik... eta Isabela deus esatera ausartu gabe lotu zitzaionean, utzi zuen ahoa berean har ziez, nahiz haren izate guztia bihurtzen zen laztan horren pean. Zorionez anderea ez zen konturatu atzekaldera hasi zuen higikundeaz...

Inor besterik ez zen ezagun etse guztian. Nora joanik ote zen haurra? Karrikara agian, eskolako lagun batzuengana, edo parkeko zuhaitzen artean zegoen bakarrik paseiatzen gaixoa... Neskamea ere ilkia zen. Halaz ere, ez zen egon nahi izan andregaiarekin goizalde Theresarekin iragan zuen lekuan, ez inork atzemanen zituelakoan noski, baina profanatze bat izanen zelako; eta Isabelaren musuak ausartuago eta gosetuago egin zirenean, isilik bere lo-gelara eraman zuen. Andreak ez zukeen horrelakorik itxaroten eta esker onezko begirada heze bat eman zion — zakur batena irudi norbaitek otapur bat botatzen dionean, pentsatu zuen sorbaldak eraikiz.

Isabelak ba zekikeen edanari emana zela, sekula ez baitzuen nekerik hartu bere joera «makurrak» inori ezkutatzekotz — bat ezik... Halarik ere begitarte zapuztu zitzaion senargaiak, atea itxi ta giltzatu ondoren, beste edozer baino lehen liburutegi baten barrutik pattar-botila bat hartu eta botilatik bertatik xurrut egin zuenean. Zergatik manerarik egin eme horren aurrean bere neskamearen aurrean egiten ez bazuen, ez ziren bata bestea baino ohoragarriago noski! Aski esker haundia egiten zion Isabelari bere burua salduz; amaiturik zeuden harekiko zaldunkeriak oro. Baina Isabelak ez zuen hitzik esan — nahiz iruditu zitzaion gizonari erdeinu bezalako zerbait erakutsi zuela haren aurpegiak; ala oker ote zegoen? Erdeinua erdeinuaren truk, kito gara... pentsatu zuen irribarre batekin, alkoholaren su ona haren gorputz guztian zabaltzen hasten zelarik. Su horrek, ordea, ezin urteraz zezakeen haren izotza. Beharrik Isabela ez da ezertaz konturako, eskatzen zion Zoriari, amore eman diezadan Theresaren geroaren gainean. Edatetik landa, zigarrillo bat piztu zuen, lasaiki, andregaiari agintzen ziolarik soinekoak erantz zitzaiz. Pozik men egin zion emakumeak.

Ba zekien Isabelaren gorputz osoa biluzik ikusteak haren erdeinua, haren narda gehituko, ugarituko zituela ezinagoan, eta horixe zuen nahi.

Begiak higuinez bazkatzen zituen andre gazteari begira bere larrugorrian, higuinez eta gorrotoz. Eta pentsatzea behin Theresa ere horrela bihurtuko zela, haur baten gorpu mendre, bere ahultasunean hain hunkigarria zenaren orde, neska baten gorputz betegina eskainiko zuela haren soari, maitari basati eta arronten atseginetarako baizik egoki ez lizatekeena!... Are gorrotagarriago zitzaion Isabela, haurra geroan zer bilakatuko zen irudimenera zekarkiolako, eta eme-gorputz hori zigorrez eta ugalez zehatzeko nahikari bat ezin garaituzkoa senditzen zuen bere zainetan, zilar-bizizko uhin hotz bat bezala. Behin eginen al zuen. Orain aldiz, berak zuen gorputz ezain horren men-peko izan behar... Bere jantzia soinean gorde zuen, bainan zigarrilloa patxadan itzali eta punta hautsontzian lehertu ondoren, joan zen ohean etzatera, Isabelaren ondoan.

Alkoholaren gain Isabelak ezarriko al zuen haren gorputzaren sorgotasuna... Begiak selauara jasorik, uzten zuen emakume irrisua haragi zainildua laztan ziez, bere buruari gogor eginaz andregai saietsera ez bultzatzekotz. Goragale bat zuen. Isabelari zerion usain okaztagarria ahora zetorkion, haren biloetatik, haren besapetik, haren sabeletik gorpu hil baten usaina izan bailitzakeen. Eta egian zen hilik zegoela eme-gorputz hori, harentzat bederen, besteen artasun epelak desiragarri aurkitzen bazuten ere. Gogoratzen zitzaion nonbait irakurri izan zuen izuipuin bat... nola senar jeloskor batek bere emaztea hil eta honen ohaidea zurrunari bizirik esegi zuen, bekatzuki maite izan zuen haragiaren ustelduraz asebetetzeraino goza zedintzat. Hura ere epaiturik zegoen halako zurrun bati loturik bizi izatera handik aurrera. Baina ez gaur, harren, ez gaur! oihutzen zuen haren etsipenak... Ba zekusan Isabelak ez zela beste aldietan bezala; apur baten buruan utzi zuen eta, besoa haren lepoan emanaz, haren eskua bere sabelari kontra atxikiz, so egin zion zerbait galdetu nahi izan balio bezela. Eskerrik asko emeari, azkenekotz utzi baitzuen! Aske zuen eskuaz xukatu zuen bekokitik isurtzen zitzaion izerdia. Ikara zen. Egar-su zuen. Jaikitza zean garbitokira joateko godalet bat ur bila, baina Isabelak, aginduki, ez zedin mugi esan zion ahapeka. «Zer da?» galdegin zuen estonaturik. Isilik egoteko keinu bat eginaz, ohetik jautsi zen andere gaztea, gelako jantzi bat —gizonarena— soinean ezarri zuen berehala eta atera joan zen oin-puntetan. Beha egon zen hor, hotsik egiteke. Gizona ere jaiki zen, kezkatutik, eta Isabelaren ondora joan. Behingoan andreak giltza ingura eta atea ireki zuen: xiki, zurbil, goibelik, hor zegoen Theresa, kordoka jarriarik atea ustekabea ireki ziotelako. «Zer ari haiz?» galdetu zion Isabelak, hasarreturik, besotik garrazki astintzen zuelarik — eta andregai hiltzeko gogoia etorri zitzaion gizo-



nari, hori egin zuelakotz. «Hoa hemendik hoa kanpora!» jarraitzen zuen Isabelak, eta bultzakada bat eman zion haurrari eskallerari buruz. Negarra begian zuela korrika joan zen Theresa, Isabelak bortizki atea ixten zuelarik. Ez zen berriz ohean etzan baina, haren ertzean jarriarik, zigarri-llo bat piztu zuen hasarrez oraindik ikara zituen eskuekin. Gizona haren erasiaren haiduru zen, itxaropen oro galdurik sekula bere nahira erakarri ahal izanzen zuela orain. Ez zuen luzaro iguriki. «Zergatik alaba besoetako hori heure etxean hartu duk?» hasten zen Isabela, «haur ergel, muker eta biziotsu bat baizik ez duk... pentsatzea gure zelatan egon dela hor, ate-atzean, gelan sartzen ikusi gaituenetik... Zergatik ez duk ezer esaten, ala barkatzen dizkiok bere manera horiek?».

—«Zer nahi dun esan diezanadan?» erantzun zion, bere buruari oraindik gogor eginaz egonarrria gordetzearren.

—«Deus ere, deus ere, hain barkaor haizen ezker; baina bihur izan nahi nauk gaurdanik neurriak hartuko dituala gu ezkondu eta ahal bezain denbora gutiren barru hemendik joan dadin».

—«Eta non ezarriko dut?».

—«Nahi duan lekuan, eni berdin ziaidak nigandik urruti dagoen ber. Ba dituk etse bereziak Theresa bezalako umezurtzentzat; ez duk han gaizkiago izanen, eta ni, askoz hobeki izanen nauk hura gabe!».

Eskerrik aunitz, eskerrik aunitz ene balizkako jainkoari! pentsatzen zuen gizonak Isabelaren hasarre-aldi horren aurrean. Azkenekotz, azkenekotz hark berak ematen zizkion bere burua askatzeko zio bat eta bide bat. Ahal zuen bezain lasaiki galdegin zion: «Eta ez badut nahi Theresa joan dadin?».

Gizonaren adiskide ohikoetatik batxok ere ez zuen orain haren etserako bidea hartzen; eta haiekin buruz buru egiten zuenean, gauaz Theresarekin zebilelarik, berak deus agitu ez balitz bezala agurtzen bazituen ere, haiek ez ikusiarena egiten zuten orain. Baina Theresaren portreta egin zuen pintorea lauzpabost aldiz izan zitzaien etsean, afal-ondoetan. Lehengo aldian, zalantzan zegoen oraindik gizona, eta ez zuten antzezaz eta literaturaz beste hizketarik izan. Halarik ere, iker eta iker, konfiantza hartu zuen besteak ez zuela gibel-asmorik eta hurrengo aldian lasaia egoen ziren elkarrekin. Hitz hartu zuten udako bakantzetatik landa haien bien portreta pintatuko zuela antzelariak... Behin afaritara ere gomitatu zuen etseko jaunak — egun hartan, ordea, neskame zaharrak zuen otordua zerbitzatu, ez Theresak... Gizonak ez zion orain artean bere eta haurraren historia kontatu; baina haren aurrean ohi zuten bezala egoten ziren biak bederen, bere elkarrekiko bizieratik deus ezkutatatu gabe, ezer epeldu gabe... Emeki emeki, gizona hasi zen lagun berri horren ikustaldiak atseginekin itxaroten. Theresa betikoa egoten zen arrotzaren aitzinean, hitz eta aieru urriko, baina alai bere gisa isilean. Gizona pozik konturatu zen ordea beti malguago eta emanago zela haren besoetan haurraren gorputz xikia pintorearen ikustaldi baten ondoan. Alde horretatik behintzat, ez zuen beldur izaterik... eta azkene-kotz, haren duda ondarrak aienatu ziran.

Beste alde batetik etorri zitzaion beldurraren gaia... batere igurikitzen ez zuelarik, uste-gabetako ekaitz lazgarri bat ordura artean garbi egondako zeruan agertzen den bezala. Theresa eskolan zen — zorionez. Bibliotekan zegoen, ametsetan; bet-betan entzun zituen norbaiten urratsak etse-aitzineko atera eramaten zuen bide-zigorrean zihar. Estonatu zen, inoren begira ez baitzen. Xilin-ots bat. Laster neskamea hor izan

zuen, batek ikusi nahi zuela hotsez. Bihotza joka hasi zitzaion ikusliarren izena jakin zuenean, eta gazigar bat nahasi zen haren aho-gozaari. Senitartekoa zen, beraren eta Theresaren ahaide bat... «Sar eraz ezazu», agindu zion laburzki otseinari, bere aulkian jarrita egonik. Lehengusuaren ager haiduru zegoelarik, gogor egiten zion bere buruari, barruko bakea eta lasaitasuna atzera irabazi beharrez... ergel eta oinarri-gabeko zen noski haren beldurkundera... Baina etorri berriaren aurpegiari begiratu ondoren, lehengo sotik ezagutu zuen ez zela ez ergel ez oinarri-gabeko! Elkar agurtzen zutelarik, besteak ez zion irribarre baten itzala ere egin, eta ezetz esan zuen hark edatera eskaini zionean. Gizona eseri zen berriz, gusuari galdeka begira, indar eginaz besteak haren eskuen ikaratzea ikus ez zezan. Jadanik iragandako filme bat izan bailitzakeen, esanen zukeen zer entzun behar zuen harengandik, eta zer hitzetan... «Barka gaitzitzen ba zaizu, hasi zen, zure onetan etorri nauzu...» eta nazka ezin esanezko batez beterik estanda egiteraino okazaturik so egiten zion etseko jaunak, horrela itzul-inguruka eta haren aldera begiratu gabe mintzo zitzaiolarik. Urde zikintsua, burjes xiki estu zikina, merezi huke leher henzadan Theresaren izena heure aho likitsaz aipatzera ausartu haizelakotz! oihu egiten zion isilki... Jabaldu behar zen ordea, eta bere buruaren jabe egon; bere higuina ezkutatatu behar zuen, bere burua apaldu, bere ohorearen minberatasuna hilduratu... errautsetan ere narrastuko zen, gizartearen indarrak eta ankerkeriaz harmaturik zetorren gizon hura maltzurkeriaz agaraitu beherraz. Ez ledila ibil Isabelarekin egin zen bezala, haren bizia zena galtzeko zorian ez ifintzeko! Isabela... hark zion noski gusu horri haren eta Theresaren berri eman... Pentsatu behar zukeen bide oroz baliatuko zela emakumea bere burua mende-katze-kotz, zer eroa izan zen bera sekula uste izateko jasan zuen laidoa —nahiz merezitu izan— ahaztuko zuela emeak edo lotsak isil-eraziko ziola!

«Haurrarentzat hobe izango duzu...» jarraitzen zuen besteak, «hazieragatik... kolejio batean... hala erabaki dizugu etsekoek...». Ez, jainkoarren, ez horrelakorik! Ez zuen Theresa joaten utziko, zoroturik zeuden, etseko ala etsekoetatik kanpo, hori uste zutenek orok... Baina zer kalte egin zien hark sekula, hain gogorki eta hain ankerki jokatu nahi baitzuten haren kontra? Bere atsegin xikietarako askatasuna beti utzi zien hark jende zintzo eta ohoragarri horiei, zer ziren haren epaile izatera ausartze-kotz? Gorrotz gorrotatzen zituen, bai, zintzo eta zuzen zikin-tsuok! Eta aurrean zedukan bertutearen zalduna, gizon behar-bezelako, ez-deus, gatz-il hori, itzul-inguruka etahitz-estalika mintzo zen hipokrita hori, ez ahal zekien egiazki nolakoa zen, ez ahal zuen haren gogo —eta



bihotz— xikikeriaren berri, bere bizi guztian egin, egiten eta eginen zituen xikikerien berri? Lapurra, salerostari bat zen aldetik gezurtia, gizarteko gizon bat izaki; satsua, lehenago emaztearekin, gizartearen onnahiaz eta legearen baimenaz hartu baitzituen ere. Eta gizelikoak oro irin bereko ziren — zer bekoki zuten, bai, haren irriki gurenari oldartzekotz ergelok?

«Ez dizut uste Theresa kolejio batean hemen baino hogeikiago izango lizatekeenik, ez irakaskintzari dagokionaz, ez eta hazikerari dagokionaz ere», erantzun zion, ikusiz besteak momentoko hurrendu zuela hitzaldia. Irakaskintzaz zer zekien delako salerosketari kultura-gabekoak... eta hazieraz nola mintza ziteken gizarteko ihakinak baizik ezagutzen ez zituen pertsona funts-gabeko, gogo arront hura!... «Haurra umezurtz gertatu denean eta neure etsean hartu dudanean, guztiok laudatu nauzue —bai, elorri bat haragitik kentzen zien diruzale berekoi haiei...— eta ez dizut ikusten zergatik orain zuen gogoia aldatu duzuen... Gauzek orain artean bezala irauin bezate, Theresa hemen egon bedi — atsegin duen artean bederen...» jarraitu zuen ausartki. Lehen gusua bere onetik ilkitzera zoan; ekurugaitz agiri zen, eta ez batere bere aisean areago, azkenean beharko garbiro hitzegin. «Bai, atsegin duen artean», hasi zen, hasarreturik, «ez dizut, ez, dudatzen emanen diozula... Hainbat gaizto zure minberatasunarentzat nahi ba duzu argi mintza nakizun... Ala uste zenuen ezkutaturik gordeko zenuela zeure jokabidea haur gaixoaren aldera? Baina guztiek ba zekizute!... Ezin iraun dezake horrela gehiago, gure etsearen izen ona galtzera ez zaitugu utziko... lehen aldikotz duzu hori gertatzen gure senitartean... lehen aldikotz bai herri honetan orotan...». Theresaren aita besoetakoa beha zitzaion, deus ihardetsi ezin, liluraturik bezala. Egia zen beraz guztiek ba zekitela Theresaren eta haren berri; gauaz elkarrekin ateratzen zirelarik ba ziren zelatan zeudenak, heien bien ezkutapena salatu baitzioten faimiliari, ba zen Isabela urdanga lotsa galdutakoa, faimiliari dei egin ziona noski... Baina gusuak horiek guztiek eman zitzaioketen baino berri zeheagoak ba zekizkien eta, nazkatuarena eginaz mintzo, hitz-erdika adi erazten zion etsean iragan zen orotik ezer ez zitzaiola isilean egon. Neskamea baizik ez zitekeen salatari izan... edozer heldurik ere, hark behintzat bere irabazia eraikiko zuela erabaki zuen gizonak bere bihotzean. Gusuak amaitzen zuen: «Ikusten duzu beraz hobe duzula bihurtu gabe amore eman, guztiontzat laketago izanen da eta...».

«Ez, oh! ez», oihiu egin zion gehiago lasai ezin egonaz mehatxu izugarriaren aurrean. «Ez dizut Theresa joatera utziko, berak ere ez nizu

utziko zuk eta zu bezalakoez nahi duzuen eginik ere gure kontra». Arrotza jaiki zen, zurbildurik. «Damu dizut, zion delako azal-utsak, damu dizut ikusiz ez zarela zentzatu nahi. Hauxe baizik ez dautzut esanen: Theresa eskolatik aske izanen duzu hemendik hamar egunen buruan, orduan etorriko nauzu haren bila eta udako oporrak gurekin iraganen ditizu, besteak bezalako etse batean, besteak bezalako jendeen artean; eta datorren udazkenean kolejio serio batean ezarriko dizugu; han, agian, zurekin ikasiak eta eginak ahaztuko ditizu, eta besteak bezalako neskato bat izatera helduko duzu — beranduegi ez bada...».

«Baina ez duzu aditzen, ez ahal dautzut esan ez dudala joaten utziko?» berriz ere oihiu egin zion, hamorraturik, eskumuturrak borobiltzen zituela, eta aulkitik jaikita bestearen gainera jauzi egitera prest. Etenik gabe aurpegira botatzen zion: «Ez! Ez! Ez!» gusua beldurtu zen egiaz; behingoan zutitu eta, hasi zen ateari buruz ihes. Baina gizona ez zerraiola oharturik, atean geratu zen, hatsa labur eta begitartea zuri. Nola ere baitzen, aski bihotz izan zuen azkenengo mehatxu hau egoztekotz: «Zuk nahi ala ez, gaurtik hamar egunen barru hemen izanen nauzu berriro, Theresa etxe madarikatu honetatik urruti eramatekotz; ene damu bakarra duzu oraindik hamar egun zurekin utzi behar baitut... Eta gogoan har ezazu, edozertan eragozten banauzu haren bila etorriko naizelarik, ez dudala den gutien lotsarik izanen hiri-zaintzari dei egiteko!». Gizona, ukaldi bat buruan hartu izan balu bezala zurturik, bere aulkian atzera jar eta mugitu gabe egon baitzen arte guztian, gaineratu zuen, ate-barruan zegoelarik oraindik baina kanporako bidea bet-betan hartzeko gertu: «Zuretzat, zoritxarreko horrentzat, aholku hau baizik ez dikezut: Hobe zenuke sendakin bat ikustera joan...» eta kanpoan itzali zen.

Ez zen mugitzen, begira zegoen inguruko paret, eta muble, eta altzariei; paretetako tabola eta liburuiei mublen gainean zeuden irudi eta antze-lanei, eta leihotik kanpoan agiri ziren parkeko zuhaitz hostodunei — azkenekotz urkabe baizik ez baitziren. So egiten zion denbora neur-tzen, denbora zauritzen ari zen ximinia-gaineko herlojuari — eta deus ez zuen ikusten. Deus ez zuen somatzen. Bere ohiko egoitzan zegoenik ez zekien areago, ohiko mundua eta izarrak eta izarbelak, gizon eltxo bati gertatuaz ez-ajolaturik, beren betiko ibilbidetik zebiltzala ahazturik zedukan. Gau eskerge bat baizik ez — ez beltz ez izarniatua, baina irungia eta uger-kolore... Bere baitaratu zenean, eta gogamena etorri zitzaionean oster, konturatu zen gorputza oro kordoka zedukala. Gorputz guztitik dei egiten zion barruko etsipenak... Ailitz betiko sorgor egon! Moldegaizki jaiki zen, eta ozta-ozta zutik egonaz errestatu zen liburutegi-sail



berezi batera, oroit baitzen vodka-botila oso bat han ezkutan utzirik. Isabela joan zen eguna ezker ez zuen edaria dastatu — baina gaur, gaur zoraturiko zen ez bazen berehala horditzen! Esker onezko malkoak isuri zituen, eta otoitz bat murmurikatu zuen edozein jainkoaren aldera, azkenekotz, bere behatz enbaldituekin, tapoia kendu ahal izan zuenean. Alkohol maitea edan zuen, irentsi zuen, erdia soinekoetara erortzen zitzaizolarik, burutik eginda irudi barrez ari zela... Berriz edan, harnasa hartzeko ahal bezain denbora guti galduz... Orain pentsa eta asma, vodka adimena argitzen dion araura. Botila erditara hustua zuen, baina ba zedukan besterik etsean, demonio guztiei esker! Edan ahal izanen zuen, mozkortasun argitzaileak zer egin behar zuen iragarriko zien arteraino. Problema erdozein askapen ongi-etorri izanen da, Theresa beste jendeetara joatera uzten ez duen ber... Urdeok indartsu ziren ondikotz! bihotza ahul, gogoa ahul — ulermena ahul, hura baino askoz, askoz indartsuago ordea! Legearen indarra eskuetan zedukaten, eta ez zuen dudatzen harma horretaz baliatuko zirela, mehatxatu zuten araura. Haren izate ororen jabe egiten ari zen mozkorrearengatik ere, hotz-ikara bat nabaitu zuen bere burua hauzitegi batean zekusalarik... eta presondegian — edo gaixotegian... busuaren aholkua gogoratu zitzaion, eta irri egin zuen kiraski. Lehenago bizi izan balira, apaiz aitor-entzule batengana joan zedin esanan bide zion... Baina mendearekin batera «aurrera» zoazen jendeok... *Jakintza* ezagutzen zuten orain haren ingurukoek ere, «Maitasun haundiaren gabeagatik gaixotasuna» den jakintza! Irri-egingarria benetan... gogoan ikusten zuen gusua Krafft-Ebing edo Freuden liburuen itzulpenak irakurtzen, estudiantzen... bur-muin lodiak nekatzen, ohitu gabeko terminak ulertu nahiz — metodikoa baitzen gizontxo — eta azkenekotz, haren kasua azaltzen eta argitzen aho-zabalik zeuden familiako beste kideei. Esan gabe zoan gaitzesten baino gupitestenago zutela orain, Freud eta Krafft-Ebingi esker... Halarik ere, ekanduaren indarrak edo, haren epaile izan ziren, heriotzerako epaia esan zuten haren gainean. Gauzak ez ziren haiek uste bezala gertatuko, ordea, deabru guztiak arren! Hamar egunen epea utzi zioten bihotz-zabalok — eta aldakuntzarik asko agi ditezke hamar egunen artean. Baina ez zuen oraindik naikoa edan itxaropen-izpi bat bezala agertu zitzaion burutasunari abegi ematera ausartzekotz; lehen baino lehen behar zuen beste botila bat aurkitu, beldurrez eta asmo kontsolagarria hegan joan lekion, sekula atzera ez bihurtzekotz. Non zen neskamea? Ez! bera joanen zen edariaren bila... baina atso zantarra ez zuen ahaztuko. Orintxe zen haren aldi izanen.

Lo-gelara iganda, botila bat hasi-gabea hartu zuen eta, apur bat gogoetan egon ondoren, larruzko zihor bat, zaldiketan ari zen bere gazte-denborako oroitzapena. Su basa bat begietan zuela jautsi zen etseazpiko salara. Atsegin igurikor batez gainezka zedukan bihotza, edariak emanik zion, senditzen zuenaz, edozer eragozpenetatik, edozein eragozlerengandik, Theresa eta bere burua askatzeko boterea. Gehiago edan behar zuen, ordea, begietako eta bihotzeko su hori ez zekiontzat itzal, etsipenaren hatzamar izoztuen harrapakin herriz ere haren bihotz zoroa utziz. Godalet bat pattarrez bete eta zurrut batez hustu zuen... gero, lasai-lasaia, ukaldi batekin lurrera aurdiki zuen. Kristal hautsiaren hatsak erakarriarik, berehala etorri zen neskamea; godalet-apurak eta edari isuria lurrean ikusi zituenean, sukaldera joan zen atzera zapi baten bila, ez ordea etseko jaunari so galdekor bat, erdi-beldurtua, egin gabarik... Soa itzuli zion gizonak, baina deusik ez agertuz bere aurpegian, arrotz bat edo ez-ezagun bat ikusi izan balu bezala, eta berak jakin ez balu bezala non zegoen eta zer gertatu zen. Baina neskamea hauskinak biltzen ari zelarik lurrean belaunikaturik, zihorra hartuta, behingoan bat, bia, hiru, lau ukaldi eman zizkion burutik behera begitartean zehar... Orroa batekin eta guztiz latz-ikaraturik ukaldiei utziri ahal izan zienean atsoak, nagusiak irkaitzez galdegin zion: «Hau ere salatuko ote diozu jendeari?» eta gaineratu zuen, zihorra mehatxuz astinduz otseinarene buruaren gainetik: «Eginahala egizu hala non hemendik ordubete batera ez zaitezen gehiago ene etsean izan, eta ez zaitzadan berriz sekulan hemen ikus! Postaz igorriko dautazu zenbat zor dautzudan — ordaindurik nahi izateko aski bekokirik baldin baduzu bederen...». Negar-zotinka hasi zen neskame zaharra... hainbat urte ba ziren etse hartan zegoela.

Indar-erakusketa horrek on egin zion gizonari. Baina vodka eragina ahuldutxoan araura bihotzeko kezka berriz ere nagusitzen zitzaion — inoiz baino izugarriagoa. Egia esan zuen gusuak: bene-benetan nahi zioten, hark eta beste guztiek, alaba besoetakoa kendu, betiko — edo beranduegi lizaketeneko. Gorrotoz eta izotzez beteriko mundu batean galdurik zeuden biak; oro etsai zituzten, inoren aldera ezin ingura zitezkeen kontsolamendu bila, salbakuntzaren bila... Inoren aldera ezin ingura, inorengandik ez zitzaien lagunzarik helduko; ez ele adiskidetsu baten hotsa edo begi ulertzaile baten soa lizatekeen laguntza ere... Ala norbaitengandik ote?... azkeneko asteotan haien etseko ikustzaila bakarra izan zen pintorearen gogorapenak jo zuen... ez zen adiskide bat ordea, oztan ezagun bat — zergatik harengana joan behar zuen? Eta zertara? Ba zekien bestea ez zatekeela gai den gutien laguntzarik haie emateko, hek



bezain ahalmen-gabea baitzen jende zuzenen indarkeriaren aurrean; eta ba zekien antzelaria ez zela erruki ergelik erakusteko gizon bat — bera ere errukirik onartzeko gizona ez zen bezala. Ez zuen balio...

Etsipena nagusitzenago zitzaion memento oroz. Mozkorra joanik zuen, baina ez zuen balio gehiago edan zezan. Ez orain behintzat. Orasteango mozkorraldiaren erdian etorri zitzaion asmo hark erroak hartu zituen haren gogoan, ordea. Beldurgarria zen bai, baina ez zen beste ihesbiderik... Ez zen! ziotsan adimenak, alde orotara bilatu eta ikertu ondoren. Izugarritzko erantzupena Theresaren aldera! Ba zekien haurra edonora jarraikiko zitzaiola, eta lotsa zen hala ere holako eskaera bat hari egiteko. Ezin uler zezakeen Theresak... Ala bai? «besteak bezalako» neskato bat ez zen ezkerre bere etseko andretzat hartu zuen egunetik... Zindoki azalduko zion guztia; bere zantzarik, eta lotsatik, eta damutik, bere beldurretik deus ez zion ezkutatu. Ulertuko ahal zuen. Baina ez oraindik, zeruarren, ez gaur! Biharko utziko zuen, errukiz aurrenekoak bezalako gau bat izan zedintzat gaurkoa...

Theresa eskolatik etorri zenean, gogor egin zion bere buruari betiko aurpegia haurrari erakustekotz; nola ere baitzen, barruko urduritasuna ezkutatu zion, usatu sukarrarekin jai egiten ziolarik. Zerbait gertatu zela susmatu ote zukeen neskatoak ematen zizkion musuen zorotasun etsituagatik? Jakinen zuen edan zuela, eta kezkatu egonen zen. Zerbait susmatzen zuenik ez zuen deus irudi-erazi ordea... Neskameari kanpoa eman ziola esan zionean, haurrak ez zuen horren zioa galdegin, eta agiri zen otseinarean joateak atsegiten ziola; gaisoak uste zukeen hura bere neskametro bakartzat edukitzekotz bidali zuela atsoa! eta negarrak zetozkion begietara ba zekusalarik nola seriozki, nola grazioski haurrak jana-riak zerbitzatzen zizkion afariaren artean. Ba ahal zitekeen handik hamar egunen bururako ez zirela areago sala horretan izan, biak elkarrekin elkarren bizirako? Baina ez zen ihesbiderik.

Errukiagatik biharamonera artean isildu nahi izan zizkion Theresa-ri haien zorion hauskor, zentzuaz lekorekoa, galzorian jartzen zituzten mehatxuek, baina ez zuen bihotzik, ez-ajolatuarena eginik, beste gaitiaz mintzatzekotz. Afaldu eta handik laster, bera nekaturik zelakoan, ohera eramane zuen alaba besoetakoa — «neke-sendalari, buru-argitzailea» izan behar zatekeen ohera, poeta hizpidean ba zegoen... Gaur ordea, elkarren aldamenen etzanik eta bi gorputzak bata besteari estuturik egoteak ere ez zion bihotzeko neke izugarria sendatzen, ez iluntasuna kentzen; Theresaren haragiaren azal-pean irraida bat bezala forogutzen zuen su ez-ia ez zen gai geroaren beldurak gorputzean ezarri zion izotza urt-erazte-

kotz... Theresa ohartu zen aita besoetakoa mugitu gaberik egoten zela eta begiak itzal, eskuaz emeki, haurrak maite zuen gisara, gorputza lantantzen bazion ere. Kezkatu jarri zen neskatoa. Baina zer galdegitera, zer eskatzera ausartuko zen... Lotsa-izpi bat zuen beti, horrela elkarrekin zeuntzalarik, eta sekula ez zuen orduan hitz egiten. Gaixoak jakin balu gizonaren gogoak zerabilzkien asmo kiratsen berri, beti eta beti barruko begiez zekusala Zoriak utzi zien ihesbide bakar hura!... Theresa ez zen ausartzen mintzatzera, baina poliki so herabeti bat hari eman ondoren ziharka, eta matrailak pizka bat gorritzen zitzaizkiola, hasi zen bera aita besoetakoa laztantzen, moldegaizki baina geroago eta amultsuago zen esku batekin. Lehen aldikotz zen hori egitera menturatzen besteak agindu gaberik, eta halako ezintasuna zedukan haur gozoaren eskutxoak hala non gizonak, bere gogoari bortxa eginik, ohildu nahi izan zituen beregandik gogapen beltzak oro senditzen zuen esker-on hitzez ezin esanezkoa Theresari ager-eraz ahal ziezontzat. Ahaztu nekeak, bai, ereti bakar batentzat baizik izanen ez bada ere — betikotasunaren zati bat izanen den ereti batentzat... Bere izate guztia eskeintzen zion Theresari, aurpegia otoitz isil batekin hari buruz jasorik; bera zen guztia ematen zion haren esku samurraren laztanari, haren aho freskoaren musuari bere zoart-intzaz eztitzen zuelarik haurrak gizonaren agortasun sukartsua; eta Theresari esker, aita besoetakoaren kezka berri ez zekien Theresa xikiari esker, bakea etorri zitzaion azkenekotz... Haurra haiduru zatekeen zerbait esanen ziola, baina, haren samurtasunak bentzuturik, ezin hitzegi zezakeen; eta neskatoak irribarre lotsatu batekin begiratzen ziolarik isilik, sentitzen zuen bere soa bustitzen, bihotz — eta gorputz-hukidura kausa zela, ezin bestez. Beldura agertu zan Theresaren aurpegian; «Zer dun?» galdegin zion, ahapeka; eta berriro, hura mintzatu gabe egoten zelakotz, botza ikaratan: «Zer da?» Ene gaixoa, aski laster jakingo dun! pentsatu zuen, bihar artean behintzat kezkarik gabe nagoke... eta erantzun zion: «Ezer ez dun, Theresa, ezer ez... Lo egin...». Noski ez zuen eginen, aita besoetakoaren egoerak sor-erazi zion kezkatu honek ez balu bere aldiz haurraren gorputz xiki malgu hura oro luzaro eta sakonki gurekatu, hala non azkenean nekadura hutsaz loak hartu baitzuen neskatoa.



BOSTGARREN

Biharamon goizean; salan zeuden, Theresa gosaltzen ari zen. Berak ez zekaeen jan deusik, korapilo bat zedukan zintzurrean haurrari begira zegoelarik. Ez zen deliberatzen mintzatzer. Behar zuen, bai... Goizalde hartan bertan biek behar zituzten, baik gogaide izaki, bideak apaindu ihes egiteko kalte egin nahi zieten gaiztoei... Hamar egun baizik ez zitzaizkien emanik izan, baina hamar egun hoek bere hurren beldurgarrraino iritxi baino lehen, biok ihes eginik ziratekeen, betikotz, etsai guztien helmenetik — aski bihoztoi izanen baziren behintzat. Damu bat samin baino saminagoak osk egiten zion bihotzean oraindik naiko osoki ezagutu ez zuen gorputxo zuri horri so zegokiolarik. Oraintxe ezagutu behar ote zuen, ala bi gorputzen elkarrekilakoa bere betegintzarrera heldu gaberik utziz, hobeki eta gozokiago loak hartuko zituzten, bata bestearen besoetan errendaturik izanen zirenean? Gorputza ez-behar bat omen; edo eragozpen bat — baina bai eta arimara daraman bide bat ere, Goizerriko mistikoek erakutsi zioten araura. Ondikotz! Theresaren arima haren haragia biano gaizkiago eta azalezkiago ezagutzen zuen oraindik... Ai, nonbaiteko ahalmen batek nahi izanen balu, gaur biziko zituzten ordu apur horietan, arima bien egiazko elkargoa lor ahal zezaten, mirari baten bidez!... Ala *gero* izanen ote zen elkargoa hura, begitasun bat bakarrik edo gerorako gertabide bat izaki orain artean egin zuten guztia?

Behar zitzaion haurrari mintzatu. Ez zuen bihotzik. Edatera joan zen sukaldara — eta hogendun nabaitzen zuen bere burua, ez gaur mozkorti batek bezala edanen zuelako lotsarengatik noski, bai baitzekien Rusia guztietako vodka guztiak ez zizkiola zentzuak sorgortuko, ez bihotza lasaituko... baina haurrak deus ez zuelako izanen, hark, bere bidean lagungarri, aita besoetakoaren laguntzaz, besterik. Agian oraindanik konfidantza emanen zion Theresari... Iguriki zuen edaria has zekion gogoan su egiten eta esan zuen: «Hator hona, enetxoa!» Magalean hartu zuen, eta biloak amultsuki ferekatzen zizkiolarik begiak negarrez betatzen zitzaizkion ezin bestez. Theresak harriturik eta izuturik so egin zion. «Theresa, asi zen berriz, nahi haute enegandik urrundu, nahi gaitinate biok elkarrengandik berezi!...».

—«Ez nauk joanen!» oihu egin zuen Theresak bere bihotzaren barrutik, «Ez nauk utziko, ez da?» eta tinko tinko estutzen zen haurra

haren bularraren kontra, negarrez hasten zelarik bera ere. Beldur ote zen joatera utziko zuela hark?... Ez, Theresa, ba dakin nonbait, hire arimak ba zekin ezin utz hazakedala inoiz! pentsatzen zuen sendoki, hitzik esan gabe jo zezan ezaguera horrek Theresaren oharmena, hitzak ilaunegi ziren-eta.

—«Ez, Theresa, esan zion, ez haut utziko joaten... baina hamar egunen buruan hona etorriko ditun jende gaiztoak, eta eraman nahi izanen haute urruti, betikotz... indarrarekin etorriko ditun, eta neuk ez dudala zuzenik hire gordetzeko zionate... O Theresa, zer egingen dugu?».

Theresa bere hartan zegoen, «Ez nauk joanen, ez itzak utz eraman nazaten!» berriro eta berriro esanaz. Gizonak so egiten zion erantzun gabe, ezpainak isilik higituz bihotzaren elkar-izketari Theresaren arimarekin jarraikitzen zitzaiolarik. Bet-betan haurrak oihu zuen: «Ez nauk joango! Nahiago diat hill!».

Zurbildu zen gizona; begiak jasan zituen neskatoarengandik, leihoetik zeihar urruti so egiten zuela, urrutira. Atzera haren aldera inguratutik, azkenean, esan zion geldiro: «Baina, Theresa, ez dakin zer dionan, heriotzea zer den ez dakin gaixo horrek». Haurrak burua astinduz «Bai ba zekiat!» erantzun zion berehala.

—«Eta nondik dakin, Theresa xikia?» galdegin zuen, haurraren seriotasunak gogo-garaitik irribarre argal eragiten ziola.

—«Ba zekiat hire esanetik, eta hire liburuetan irakurririk». Ba zitekeen, bai... ba zitekeen haurrak hark bezainbat zekiela — edo hark bezain guti... Zer garrantzia zuen hori egia ala irudipen bat izateak, bata edo besteak laguntzen bazituen biak bide itzal, itzultzerik gabeko hartan gaindi, ordua etorria lizaikeenean? Neskatoaren aurpegiari begiratzeramenturatzeke, mintzatu zitzaion berriro: «Eta ez haiz bildur, Theresa?»

—«Ez, enekin izanen haizen ezker?» ihardetsi zion, bihotza urratzen zuen sukar batekin. So egin zion: haren begitartetik, ordea, agiri zen beldur zela... Luzaro ez zuten arreagi hitzik izan... minutak eta orduak uzten zituzten hiltzera, bata besteari estuka heldurik, bata bestearen gogoetak iragarritz noski. Gizonak aldia iritxi arteraino gaia aipatu gabarik lagatuko zuen hobekienik, baina, isiltasun horren erdian, neskatoak galdetu zion behingoan: «Hil ondoren ere elkarrekin izanen gara, ez da?» Ene Theresa! neronek baneki! pentsatzen zuen etsiturik, nik zorioneko horrek ene liburuetan eta ene eleetan ediren dunan zihurtasun hori neronek baneduka!... Beti saiatu zen zindo eta egiati izatera haurraren edozein galderari buruz; baina orain beraren zalantza, beraren ezagueraren mugak hari agertzea ankerkeria bat baizik ez lizateke, eta azkenekotz



esan zion: «Bai, Theresa, elkarrekin izanen gaitun orduan ere». «Beti elkarrekin, gu biok bakarrik?» jakin nahi izan zuen neskato kezkatuak — eta segurtatu zion hark: «Bai, betikoz biok elkarrekin, eta gaizto guztiengandik urruti!».

Biak elkarrekin betikotz? Biak bat eginik betikotasunean? Batzuek hala diote, eta bestetziek bestela... izugarriena da neronek ez baitakit, zion bere baitan... Beharbada Theresak ba daki, ordea, adimen elkor alferarren urguiluak ez baitio hari ber-jaiotzko ezagutza lausotu eta itzal erazi, eni zoritxarreko honi bezalaxe... Denborari gehiago utzirik izan balitzait, dena ikasiko nuen atzera, haren arima erneak eni irakatsiz... baina beranduegi da, eta orain beldur naiz, ezin-gehiagoko beldurraz, ordua da delakotz heldu gure bien batasuna zulo beltz batean agian ondatuko baita, gure bien izana eta izanerekin batean-betikotz. Berdin izugarria, edo areago, osorik itzaltzen ez bagara ere baldin bi iratxo bezala egotekoak bagara betikotasunean, elkarrengandik betiko berezirik edo, sordeis, gehiago ez jakinik elkarren berri... Baina batak bestea areago ez ezaguturik ere, bata bestearenganako irrika lauso bat, orduan ere inork ez ulertua, geldituko zaigu beti, ez da, Theresa, ez da?... Baina oi! egia ba da bi iretxo berezi ez garela ere izanen, arima-molekula barregarri bi baizik, bi arima-zati arimaz gabeturik geuri ez doakigun batasun alfer eta anker batean galduko direnak?... Ene jainko zaharren aldareak zutik balira oraindik ez nuke beldurrikan, aspaldion pozik joana nintzateke Theresarekin batean gaiztoek eta xarrek ahatz-erazi, gezurtatu nahi daukuten Gazteen Lur irrikatu hartara...

Ezina zen... ez ziezakeon ezerk, ez Oro zen Ezerk ez eta ezer-ezak ere, Theresa ken betikotz, jainko zaharren arnegatzaile zirn gizon eta emakumezkoek hori ezin lortu bazuten. Zer zen haren adimen ergel hori, zer ziren bihotza ausikitzen zioten duda ergelok?... Guztiaren azalpena izan behar zen nonbait, zorion guztizkoaren giltzekin batean Theresak eta elkarrekin edirenen zituztenak! Bestela deus ezin izan zitekeen, deus ez zen sekula izan: ez Theresarekikorik, ez haren hori-izaterik itsas-bazterreko herrialde zahar hortan, ez itsasorik, ez herririk, ez mundurik; inon, inoiz, inor, ezer ez zen izan. Malkoek ez ahal dute, ordea, ez-izatea ukatzen? «Oi! Theresa», deiadar egin zion nigarrez zoroturik, «ez ezan kezkarik ukan batere, beti elkarrekin izanen gaitun bai biok, beti!».

Eguerdiko hamabiak ziren, baina ez zuten bazkaldu. Ez zuten elkar utzi nahi, ez minuta bat, ez sekonta batxo ere, arrats-alde eguzkitsu hartan etsetik azkenengo aldikotz elkarrekin aterako ziren ordura artean. Uste zuen Theresa konbentziturik —ailitz bera hala!— ezen, nahiz bel-

dur lotsakor bat salatzen zuen oraindik haren soak, ez zirudien areago kezkatuak. Zentzu-bikotasun gabeko haurtasunaren zoriona eta saria!... Zihur-zihur zegoen neskatoa gaua erori baino lehen bata bestearekin egonen zirela, betikotz betikotasunerako, eragozpenik eta areriorik izanen ez zen atsedena-leku loredun batean. Gizona beldur zen bai, beldur latzetan, harentzat egintza azkenean ametsaren senide izan zen mundu zahar honetatik alde egin beharrez. Otoi egin behar ote zuen? Zein jainkoari ordea?... Alferretan ez ahal ziren izanen balizkako jainkotasun bati zuzenduko zizkion otoitz erdi sinetsiak?... Hobe zuen Zoriaren meneko utz zezan bere burua — zoriona ala zorigaiztoa zatekeenetz ez zekien, Theresaren gidaritzapean izanen zela baizik. Bai, agintzen zion bere bihotzari, azkenengo egun horretan, neguko irribarre bat zerakuskion uda-egun horretan, Theresa izanen zuen gidari, zihurtasun baten jabe zirudien ezkerre, lehen eta azken aldikotz —ala betikotz?— elkarrekin ibiliko ziren bide berrian gaindi. Lehenik, ordea, egiaztatu behar zion haur emeari osoro eta hura bakarrik nahi izan zuela, irudien ez-beharreko mundu honetarako ere. Zailena izanen zen hori geratzen zitzaizkien eginkizunetan — zailena eta premiazkoena... Haurra ez zekion ohar aha-leginduz — barka, Theresa, sekonta batentzat, minuta batentzat, esan gaberiko hitz emanagatik ere uzten bahaut, eskatu zion, ahalge, bere bihotzaren isilean — mozkortzera joan zen, bere koldarkeria madarikatzen zuelarik etsituta. Barkamendua emango ahal zion Theresak, bestela zailegi eta ezin egina baitzukeen... itotzear den batek haize salbagarria xurruapatzen zuen legez, edan zuen irents zezakeen alkohol guztia, eta orain — *nevermore*. Dena hurrendu artean iraungo ahal zion mozkorrak.

Abaguneari isiltasuna zegokion. Ez zuten beharrenek beren sentimenduak bata besteari erakustetekotz: elkarrekin bizi izan ziren hilabete horietan, paradisu bat berekin zekarten egun bete horietan, guztia esan zioten elkarri. Gogoan zerabilzkien gizonak arte labur horretan izan zirenak oro, haurrari gauaz isilean egiten zizkion ikustaldietatik hasita; denbora batean ahalge bat ematen zioten orain poesiaz jantzirik agiri zitzaizkion ikustaldiok — zergatik ahalge izan, Theresaren gorputzarenaganako irriks bat ukan zuelakotz? Lotsatzen ahal dira edozein laztantzez senar-emazte zintzo, zuzenak?... Bai, beharbada, eta horrengatik idealismoz estaltzen dituzte bere irriks eta grina harakoiak, lotsak atsegin eragotz ez diezentzat... Theresak eta hark, ordea, ez zuten estalgiren beharrik, gizonen idealismo ergela baino mila aldiz idealezkoago izan baitzen, eta baitzen oraindik, haien elkarrenganako erakarmen zoratu!... Eta hain aurki Theresaren haurtasun oso egonaz egingo zuen sakrifikatzeak ere ez zion



lotsarik ematen: haur garbia garbiago baizik ez zen aterako laztan bortitz hartatik eta bera ere irriki makur guztietatik ikuzirik, biok orban-gabeturik betikotasunean edo ezer-ezean sartzekotz...

Gogoetan egoten zen Theresa... ere bai, ausaz — ala poz igurikor, susmorik gabeko baten egoetan eramana zen jadanik haurra, irudimenez, geroko zorion-leku ustekizunezko hauetara? Hala antz ematen zuen haren irribarre zerutarrak... Haren erru-gabetasunaren jabe izan ahal balitz gizona ere, ordu hartan! Pattarrak barrua erretzen zion, adimena garretan ezartzen... baina ez zen mozkor; ez zuen utzi nahi mozkorra haren buruaz jabetzera — bere ezaguera osoa azkeneraino gorde zezan eskatzen zuen haren Zindotasunak. Joan beharko zuten laster... Seinale bezala, aspaldiko goizaldi hartan biek elkarrekin entzuen zuten Schuberten sinfonia disko-inguratzailean iragan erazi zuen berriro; musika isildu zenean jaiki ziren biak elkarrekin eta, bata besteari eskutik helduta, kanpora joan ziren.

Itsasoaren aldera zebiltzan, isilik, urrats lasterrean. Udako egun eder bat zen eta alde orotatik, hiritik, baserrietatik, ba zekusten jendea ondartzarantz abioan. Eguzkia zilar-koloreko zen eta errukirik gabe isurtzen zuen bazter guztietara bere argi itsugarria; uhin berde-urdinak ezti-ki hausten ziren, ordea ondoartzaren hegian... Baina zinaurri beltz, higuingarria batzu bezala agir zitzaizkien ondarrean jendeak — urrutirago behar zuten... Eta itsas-bazterrean ba zioazen, aurrera — zelatan, haien zoriona gal-erazi nahi zuten gaiztoak ondotik jarrian izan bailituztekeen... Udazalerik ez zen leku baztertu eta egoki batera heldu ahal izan ziren, beren ezagunetatik inor gurutzatu gabe. Ikusmena hel bazainbatean zabaltzen zen haien aitzinean ondar zuri mehea. Itsas-enarak baizik ez zituzten jakile izanen... iherilaririk ez ontzirik ez zen ikusten haien oinetaraino atsedean hartzera zetorren itsaso bortitz eta ezti, bazterrik eta ondorik gabeko hartan; eta haren beteak izuz eta herriminez batera jotzen zuen aita besoetakoa... baina Theresa aurrera zoan lehena; eta beldurrez ez zuelakotz erakusten haurrak, ahalgez eta urguiluz bihotza gainezka zedukan gizonak, atzetik zerraiolarik. Theresa orain gidari, bai... Haren nahi gurena egin zedila.

Plaia hartako gunerik baztertuen, ezkutatuena, itsaso zabalari hurbilenera iritxi zirenean ere, haurrak zituen lehenik udako jantzi arinak kendu; eta gorputz zuria biluzik erakutsi zionean, bere ahultasunean hain hukigarria, bere ahaltasunean hain jauretsia, gizonak areago ez zekien etsipenez negar-garraisiaka hasi, ala zorionaren onaz belaunikatu eta Iza-tea benedikatu behar zuenetz... Baina Theresa haiduru zen — orain,

lehengo aldikotz beharbada, den mendren lotsarik gabe haren soari eta haren irrisari eskainirik izanaz... Theresa haiduru zen, begi nabarrak samurtasunez beteak hari buruz jasorik, bera ere desbeztitzen zelarik — haur-beldurritz ez — ironiarik agertu gabe haren gizotasun anker eta arrontarengatik. Itsasoak eta zeruak esmaltezko zola bat egiten zioten neskatoaren gorputzeko urreari. Soa bazkatzen eta asetzen zuen aita besoetakoak hainbat edertasunez, hainbat urrezkotasunez... Ez zen deliberatzen urrats bakar batez ere haren gana hurbiltzera, eta horrela egonen zen munduaren azkeneraino... edo itsaso zabala bere oguz haien harrapatzera etorriko zen arteraino... Bere elkar-jaurespideko azkenengo eginkizuna egitekoa zen, ordea, ez zuen atzeratzerik! Joan zen haurrarenaino, eta berari kontra hartzen zuelarik esaten zion eztiki: «Deusik ez esan. Theresa, beldurrik ez izan... sinbolo bat baizik ez dun, eta geroako agintza bat... deus ez ezan esan ez pentsa ene kontra min egin behar badaunat, Theresa xiki horri!».

Ba zekien Theresa xikiak... eta gizonak itsasoaren aurrez aurre hartu zuenean, urratzen zuen zauriaren sakonaz eta erratzen zuen suaren garraz ezpainak tinkat eta begiak bustitzen bazitzaizkion ere, haren gorputza oro ikara jartzen zelarik, ez zuen ez intzirina bat, ez hats-behera bakar bat ere itzurtzera utzi. Aitzitik, biak bateginik uhin marrumakarien aitzinean hor zeudelarik sekula amaitu behar izan ez balu bezala eretiak, bere irribarre gozo liluratua gorde zuenaita besoetakoak lagatu ez zuen artean. Orduantxe bakarrik erori zen ondartza epelean, ezindurik; eta gizonak, haren ondoan belaunikatuta, urraduraren mina musuka sendatu nahi ziolarik, berriz eta berriz berresaten zuen mozkorturik, eroturik: «Orain elkarrekin izanen gaitun beti, elkarrentzat elkarrekin beti!», bere bihotzeko egarria haurraren odol berriaz hautsi arterainokoan...

...Gero, deusetan gehiago pentsatu nahi ez balute bezala, itsasoan sartu ziren eta uhinek bertan garbitu zituzten bekatu guztietatik. Oraindik ez zekien ongi iherikan Theresak, baina gizonak gerriatik atxikitzen zuen uraren gainean. Apur bat egon zen berdetasun hartan haurraren itzulika; geroago eta astunago, ordea, egiten zitzaion alaba besoetakoaren gorputz arina, edan izan zuen alkoholak sorgortzen baitzizkion lohada-rrak eta eguzki gorak zilar urtuz betatzen bur-muinak... Alegintzen zen haurra joatera ez uzteko, eta haren beso zurrunduak estuki eusten zion oraindik, etsituki, Theresaren gerriari... Ezer ez zuen areago gogoan zilarrezko irraida hura baizik; halarik ere, olde lauso bati jarraikiz, gogor egiten zuen, besoak eta ankak nekez zerabilzkiela, kostari hurbil egoteko; baina haurrak zabalerarantz ba zeraman, geroago eta urrutirago... Ez zen



ontzi bat agiri zabalera horretan guztian, ez argi-dorre bat, ez arkai batxo ere... Noraino joan beharko ote zuten, eta noiz arteraino? Oi! Theresa, pentsatzen zuen, ez haren gogoak, haren gorputz nekatu osoak baizik, oraindik minuta bat bizi haizen enekin, oraindik sekonta zenbait soilki, eta hire tirriari amore emanen zionat gero... Zer zain momento kaskar bat betikotasun guztiaren aldean?... Baina ez zitzaion deus esatera ausart... Nekaduraren haundiegiaz nahi-eta-nahi-ez haren besoak itzurtzera utzi zuenean, undina bat bezala abiatu zen Theresa, olatuen oldarrak eramana, itsas-beteari buruz. Moldegaizki saiatzen zen aita besoetakoak irakatsi zion antzora soin-adarrak higitzen, eta denbora apur batean itsasoak atxiki zuen bere gainean, ur-lili zuri zabaldu bat izan bailitza-keen. Gizonari so egiten zion, hain urrundik jadanik! eta haren begitar-teak beldur-antzik ez zekarren... Haurra begira zitzaiola, haren alderantz lehiatzen zen iherika... Zer gogortasuna, ordea, haren gorputz guztiarena!... Laster neke ororen atsedena irabaziko zuen gorputz makal horrek, otoi! Theresaren ganaino eraman ahal leza, biak lekarren besoetan ondartzekotz uhinen peko egoitza misterioetara... Oraindik lau besokada... oraindik bia... harren, haren besoen indarrak iraun lezan hartara... harren, itsasoko jainko haundiak esker hori egin liezon... ez zuen Theresa hura baino lehen, hura gabe joatera utzi behar, otoi!...

Theresa uretan hamildu zen. Olatuek haren ikusmenetik kendu zuten baikoz, orroa bat egotzi zuen gizonak... ez horrelakorik, harren itsasoko jainkoa, jainko anker hori!... hainbat dituk heure azalean ontziak, eta marinelak, eta gal-zorian dauden bizi alferrak... horiek jo itzak, arren, baldin hil-opariak nahi ba dituk, ez ene Theresa!... Eta bihotzaren oina-ze izugarriaz, bet-betan, alkoholak eta eguzkiak sorturiko mozkortasunak alde egin zion... Gizagaindiko indarka egiten zuen Theresa hondatu zen gunera heltzekotz... ez zen gehiago mozkor, baina beranduegi zen... Ez! olatu haundiek atzera egin zuten, eta neskatoa berriz ere agertu zen itsasoaren azalean; oraindik begiratzen zion aita besoetakoari irribarre batekin, baina ez zituen lohadarrak areago mugitzen, haren gorputzkoa ezindurik. Azkenekotz, pozezko negarrak zerizkiola, harenganaino iritxi zen gizona, beso bat ezarri zuen estuki haren gerriaren inguruan, eta doi-doi ur-gainean egoteko mugimenduak egiten zituela, egon zen horrela-harnasa hartzen deus esateko edo pentsatzeko ez gai. Mintzatzeko ahalmena itzuli zitzaionean oiuhu egun zion, kostaren aldera atzera zeramalarik: «Ez, Theresa, ez gaitezen horrela hil gizatarren gatik! Ez dinat nahi hil hadin, neurekin gorde nahi haut jende guztiengatik ere... Ihes eginen zienagu, gaur bertan ihes eginen dinagu norabait hala non herri honeta-

tik inork ez baitu jakinen non izanen garen, inor ez baita etorri ahal izanen elkarrengandik gure bereztera... O Theresa, dei egin zion belarrira, harnasa berriz ere hartu ondoren, maite haut! Beste gizonek beren emaztea maite duten bezala, eta gehiago, eta hobekiago maite haut, Theresa, eta be zekinat hik ere maite naunala, ez dinagu beraz hil beharrik, ez dinagu hil behar... Theresa, hunkiduraren indarragatik, alditxarturik zegoen haren besoetan, begiak itxita, sudur-zuloak zabaldu, aurpegi-txoa zuri-zuria. Ez zuen muntarik! Entzun zuen, bai... eta bizi zen... bere eskuaren pean haren bihotza joka nabaitzen zuen. Ez zen hilen, ez zuten bata ez besteak hil beharrik elkar maite zuten ezker... Ihes joanen ziren gaur bertan atzerrira, itsasoaz bestaldeko atzerri urrun batera... Eta itsaso maitean hiltzeko sartu ez balira biak, inoiz ez zuen beraz ulertuko zenbatetaraino maite zuen, eta nola ez haur bat zelakotz bakarrik, ez garbi eta zuri eta horaila zelakotz emakume ezainen aldean, baina Theresa zelakotz!... Bizi behar zen, bai, haren bizia izatekotz! Eta beste jendeek harengandik erauziko balute? Bizi behar zen halaz ere... Kentzen bazioten besteek, itxo egingo zion, igurikiko zituen behar ziratekeen hilabeteak eta urteak, eta harekin ezkonduko zen, jendearen gaiztakeriak indarririk ez lezan ukan haien kontra, beste maitarien antzora beren zoriona goza ahal lezaten elkarrekin, biak elkarrentzat bizi izanaz, Zoriak nahi izanen zukeen bezain luzaro!

Nekez zoan aitzina, alde batetik haurraren gorputz gonorte-gabetuak eragozten ziolakotz eta bestaldetik edan zuen vodka guztiaren pisuak... Baina kostara helduko zen, ez zen urruti, ez zen hain urruti... itsasoko jainko onak bizia barkatu bazion Theresari, segurki helduko zen itsas-bazter salbagarri hartara... Pentsamendu hori baizik ez zitzaion gogoan geratzen, eta tai gabe hitzok berresaten zituen hortz tinkatuen artetik: «Helduko gara, helduko gara», leihorrari buruz geroago eta neke-zago, eta ahulkiago, indarka egiten zuelarik. Bai eta uhin eskerge batek, itsasoko jainkoak igorri izan balio bezala, jo eta uzkailli zuenean ere, Theresari uko egitera bortxatzen zuela, oraindik esaten zituen zoratuki, etsituko. Gero deus ez gogoaren gaua baizik...

...Leihorretik ikusi zituen pasaiari bakarzale batek ez-beharra berehala seinالاتu zuen. Haien salbatzera lehiatu ziren xalupak eta iherilialiak beranduegi heldu ziren, ordea. Haurraen gorputza hondatua zen; uraren oldarrak engoiti ba zeraman hainbat gutiziatu zuen zabalarantz, Gazteen Lur hainbeste amestu hartaraino... Gizona bakarrik zuten eriden, eta leihorrera eraman. Ez zen hilik... Hiri-zainen etseko gaixotegian, nekearen nekez izan bazen ere, bere baitara erazi ahal izan zuten; eta begiek



ireki zituen orduko aditu zuen Theresa joana zela — betikotz. Hiri-zainek egiten zizkieten galderei ez zien deus erantzun nahi. Zertarako jakin nahi zuten?... Zergatik ez zuten bakean uzten?... Theresarik ez zen gehiago mundu honetan — eta uste zuten ergel horiek bera mundu honetako zela oraindik, haien galde zoroei ihardesteko nekea hartuko zuela? Utz zezaten bakarrik... ez zen mintzatuko.

Ondorio gabeko galdekatzeaz asperturik, azkenekotz amore eman zuten. Ezagutua zen gizona, etse on bateko seme zen... ez zezaketen bor-txa. Haien jakin-gurak biharamon artera itxo egingen zuen, baina orduan mintzatu beharko zuen nahi ala ez! Bitartean, ez zuen noski ihes egingen... Eta polizien buruzagiak agindu zuen beraren etsera lagun zezaten.

AZKEN

Ez zuen ihes egin. Polizien ateraino lagundu eta aske utzi zutenean —ez ordea etsearen zuzenbidea arretaz ikasi gabe— lo-gelara igan zen berehala. Lurrean belaunikatuta, burua ohe-zuraren kontra joka, Theresari oihu egiten zion: «Oi! Theresa, ziotsan, jadanik hire deia badantzut, baina hain ahula, hain ezagun-gaitza... Gaua aski luze izanen dun, ordea, eta hire botzak indar hartuko din, geroago eta areago, hire izate berriari ohitzen zatzaizkion araura... Baina engoiti dakin... otoi esaidan ba dakin! hire ondotikan natorrela, ez haudala utzi! Berriz ere jende gaiztoek ninate hiregandik berezi nahi ukan... baina aldi honetan ere ez dinatete bere nahia irtxiko! Hori entzuten dun, Theresa, ene maitea, ene andre-gaia, ala hire belarriek ez ditinate oraindik mundu honetako hotsak harrapatzen? Oihu egingen daunat entzun nazanantzat, oihu egingen dinat hala nola pareta, eta lano, eta itsaso, eta mundu oso baten artetik entzuten bainaun eta nigan sinetsiko!...» eta bere orroez betatzen zuen etse hutsa, begitartea eskuekin estalirik, soa tapaturik arimaren begiak zabal zekizkiontzat. Horrela egon zen gautu artean... Horrela egon zen gaua jin ondoren ere, ilunpean, konorterik gabe lurrera erori arteraino... itsasotik zetorren haizeak, etsearen inguruko zuhaitzak astinduz, Izadiaren erostaka ezta entzun-erazten zuelarik gau-ilean. Eta gauaren erdian atzarrri bazen gizona, zuhaitz anaiok ez zuten geroan zer ikusi zuten salatu-ko, gelako leihoaren aldera bere kima gorak makurtzen zituztelarik hobe-ki behatzekotz.

Biharamomean goizean goizik joan zen komisariara. Ba zekien inkesta bat izanen zela bezperako gertakizunagatik, eta egun hartan bertan haren galdekatzera etorriko zirela. Inola ez zezakeen egun hartan bere askatasuna gal! Horrengatik aurea hartu zien eta berez esan zien... jakiteko zuzena zuten guztia. Ez besterik... Atzera-galderarik gabe behatu zitzaizkion «ez-beharra» nola gertatu zen jaulkitzen zuelarik. Baina, nahiz lekuko batek ikusi zuen haurra salbatu nahirik ahaleginka, ba zekien mesfida zirela. Nola ez zirakeen... Aisa ohartuko ziren urez bezainbat alkoholez blai eginik zegoela salbatzaile ergel haiek leihorrera ekarri zutenean... eta bestalde, xede oneko jende moralzale batzuek eman zioketen, noski, Theresaren eta haren bizieraren berri... Inkesta jarrai bezate gura duten bezainbat, pentsatzen zuen amaitu zuenean, gure ezkutapenak oro ager bitzate, bai, atsegin badute, eta haien irakaskintza-



rako eta eraikidurarako izan bedi ikasiko duten guztia! Joatera uzten zuten ezker... Polizi-buruzagiak eskatu bezala, zin egin zuen herrian egonen zela, haien eskumenean, gauza dena garbi arteraino. Eta ilkitzera utzi zuten.

Ez zen bere etserantz abiatu. Ez itsasoari buruz ere. «Theresa, itxo egin, ekuru-gaitz ez izan!» esaten zion neskatoari, «Ez dadila hire botza hain hozten izan, jendeek entzunen dinat bestela, eta berriz ere gure bereztera saiaturko ditun... Theresa, barka, gure maitasunaren ezkutape-nik salatu badiet ergel horiei nahi-gabetatik... Gure mendekantza duken haien jakite hori! Ala erdeinuz barkatu dien jadanik? Ala mendekuz eta erdeinuaz bestaldean izan behar gara oraindandik?... Hiriko kaleetan gain-di ibilki horrela gora mintzo zela —bere buruarekin, uste zuen zoro bati bezala errukiz so egiten zioten pasaiariak... zoroak, hek ziren zoroak!— pintorearen etsera heldu zen. Sartu zen. Han zegoen antzelaria, haiduru noski. Ez zion hitzik esan — ez zuen esan izan beharrik: behingoan gizona hasi zen mintzatzen, eta jaulki zion beren maitasunaren historia guztia, deus isildu gabe... bere duda, eta gezur, eta ahulkerietatik batxo ere ezkutatzeko... baina bai eta Theresak nola barkatu zion ere, ez bazuen jakin besoetan gordetzen, eta nola haren begira zegoen orain Sartaldeko ur-jauregi irrikatueta, beti haur, beti urre, beti elur izanen zen printzesa bat, loreen eta kristalezko abardun sagar-ondoen artean... Pintoreak lilu-raturik bezala entzuten zuen, eta azkenean, bere bien zoriona oro azal-durik joatekotz jaiki zenean, ez zion hitzegin ez deus besterik galdegin. Ba zekien orain. Etse-ateraino lagundu zuen; ez zuen besarkatu, ez zion bosteko bat ere eman, baina luzaro jarraiki zitzaizkion haren begiak, bes-tea itsasoaren aldera zoalarik.

Aldi hartan ez zuten gizonaren gorputza aurkitu, Theresa ito zen gunean luzaz bilaturik ere. Ergelak! engoiti urrutira ba zeraman Theresa eramane zuen uhin gora hark berak... urrutira, haien helmenaz bestaldera, haien munduaz bestaldean dagoen Gazteen Lurrera, han, undina eta itsas-nesken artean, igurikitzen baitzuen haurrak, bere gorputz eta arima berriz bateginen eskeintza hari egitera gerturik. Beti iraunen zuen eskaintza bat... Eta barregarri iruditzen zitzaizkion xalupa horiek pintoreari itsas-bazterrean zegoelarik, zur eta metalezko ontzi horiek iratxo-antzeko gizonen kargaturik, haren bi lagun betikotz elkartuen bila zebiltzanak... Eta xalupek bere bilaketa alferrari amaia eman ziotenean azkenekotz, kostan egon zen oraindik, ez goibel, baina etsiturik, eta gogoetatzen: «Nago ulertu duten, haien etsean ibiltzen nintzelarik, zenbatetaraino begietsi izan ditudan! Lehenago ezagutu banitu, hobeki lagunduko nituen, hobeki

lagunduko genion elkarri... Nago ikusten nautenetz orain, bere uharte dohatsu haietatik, eta ene bihotzean irakurtzen dutenetz...». Baina haizeak eta uhinek baizik ez zioten erantzun... ez zen haur edo gizon zoriontsu baten botza ezagun haien artetik... urrunegi ziren jadanik. Beranduegi esnatu zen... ez zuen balio itsas-bazter huts hartan luzaroago egon zedin, pentsatu zuen hats-behera batekin; hirira itzuli baino lehen, oreka, azken begirada bat eman zion, isilik, iluntzen ari zen ur berdeari eta, behingoan, uretara jaurti zuen eskuinean zekarren urrezko zaldun-eraztun bat, itsa-soko jainkoari oferenda. Ez zen ankerra izan biontzat.

Hirian sartu zenean pintorea, bere bakartasunaren azta jasan-ezina zedukan. Ez zuen lagunik, ez zuen gerorik — amets bat baizik ez, gero-rako laguntzat, eta amets alferra... Zer egin beahr zuen? Gizona eta haurra — eta Isabela, neskamea, gusua... ordaintz-erazi behar ahal zien oraindikbizi zirenei haien ankerkeria bi maitarien aldera? Baina nola?... Erdeinuak gehiago balio zuela ikasi zuen... Gizona eta haurra pintatuko zituen elkarren besoetan, bere oroimen amultsua gidari; haien elkar-mai-tatzea izan zen mirariaren historia kontatuko zuen, bere bizi guztirako gomutagarri. Huts eta hutsune bat izanen zen haren enparantzako bizi guztirako... Miraririk ez zen berriz izanen, jainkoek ez zioten hari There-sa bat emanen... beranduegi otoiztu zituen, Inolaz ere ezin sar zitekeen gaur bere etsean, bere etseko jende zintzo eta zuzenen artean! Paseian-ten ajolarik gabe negarrez ari zela, karrikako lehengo ostatuan sartu zen, bere amets etsigarria alkoholean itotzeko.